

**M-15 Bartzelonan**

Kanpaldiaren kronika
Plaça de Catalunyatik

**Zubietako
errauste planta**

Udaletan dago
proiektua
geldiarazteko gakoa

**Barandiaran
Museoa**

Eraikina gainditzeko
duen altxor
etnografikoa

Laudio Ikastola

Premia bereziak
dituzten haurrentzat
gela bat egokitu dute

Wagner

Gaizki
interpretatutako
musikaria

**Etiopiako
Ongota hizkuntza**

Azken zazpi hiztunen
testigantza

José Bové

«Ez gaitezen engaina,
ez dago Europarik
laboraririk gabe»





► Erreportajea: Johnny Kurutxet. Sustraiak han dituen

Johnny Kurutxet ezterenzubiarra Kaliforniako San Franziskon bizi da 1966tik. Ameriketan diren bertsolari bakanetakoa, hara joan ondotik ekin zion bertso kantatzeari. Bere eskutik ezagutu dugu Euskal Herrira begira bizi den beste San Franzisko hori.



► Pertsonaia: Jose Bové

José Bové globalizazio alternatiboaren aldeko munduko pertsonaiarik ospetsuenetakoa da. Frantziako nekazaritza-sindikalismoan hasita, desobedientzia zibileko ekimenei esker lortu du ospea, batik bat *laster janaren* kontra egindakoen ondorioz. Berarekin izan gara Bruselako bere bulegoan.



► Amaiera: Hostoak

Oreka TX, Amaren Alabak eta Kukai taldeek musika, ahotsak eta dantzak uztartu dituzte 'Hostoak' izeneko ikuskizunean.



Lehiaketa

Osatu marrazkia originaltasunez eta bidali erantzuna beranduegi@argia.com helbidera.

Saria: Donostiako Zientzia Museora joateko 2 lagunentzako sarrerak

www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko ekainaren 12a, 2.280. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Aiora Renteria:** «Zergatik ez zaie San Miguel edo Coca-Colakoei beherapenik eskatzen?». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Barandiaran Museoa.** Ahozko ondarearen gordailu irekia. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 5

Pertsonaia

- **José Bové:** «Demokrazia berrasmatu behar da». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Gela Egonkorra.** Ikaslearen beharretara egokitzea helburu. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Gu, ezker abertzalekoak. BEÑAT SARASOLA / 20
- **Ez gara besteak bezalakoak.** EKAI TXAPARTEGI / 21
- **Hiruko txikian** Azulak. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Espainiako monarkiaren alde.** XABIER MENDIGUREN ELIZEGI / 22
- **Txandan** Zer itxaroten? ANDONI MUJICA / 22
- **Zirtak** Haserrearen ordaina. JOSE INAZIO BASTERRETXE / 23
- **Bertso berriak** Muxurik muxu. MIREN AMURIZA / 24

Erdiko kaiera

- **Wagner kasua.** Musikaren zaharkitze behartua. HEDOI ETXARTE / 25
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 29
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak/Abarrak** JON TORNER / 32
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Zubietako mankomunitateen eraketa.** Zubietako errauste plantak pitzadura berria izan lezake. URKO APAOLAZA / 37
- **Bartzelonako haserretuen kanpaldia.** Heterodoxia kanpin-denden barnean. ALBERTO PRADILLA / 40
- **Ongota.** Oilasko zaintzaileen hizkuntza galzorian. IÑAKI GURIDI / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Wal-Marten beti merke eta ona, orain iraunkorra. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Presazkoak eta garrantzitsuak.** MIKEL IRIZAR / 50



“Zergatik ez zaie San Miguel edo Coca-Colakoei beherapenik eskatzen?”

Aiora Renteria | Zea Mays

Negua joan da ta...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Zuk ere panorama musikala oso gaizki dagoela esango didazu?

Diskoetxeak orain arte bizi izan diren bezala ez direlako biziko panorama beltza? Talde mordoa dago, gaztetxeen sare indartsua, megafestibalak jendez gainezka... Negar egin beharrean, ingurura begiratu eta formula berriak bilatu behar dira.

Ados, baina diskoak dendan saldu beharrean kontzerturako sarrerarekin hamar eurotan eskaintzea ere...

Banaketa eta salmentaren unean diskoaren norabidea galtzen genuen. Hainbeste izerdi bota ostean zergatik erregalatu behar genion banatzaileari promozioaren olatua? Formula ederra izateaz gain, jarritako dirua berreskuratzen dugun lehen aldia izan da.

Esango dute berriz diskoak garesti daudela!

Letxugen negozioan denek kobratzen dute eurena letxugak landatzen dituenak izan ezik. Letxugak zuzenean saltzen hasita, oster, eroslea eta saltzailea ateratzen dira irabazle. Hemen berdin.

Laster dituzu kulturak doakoa izan behar duela diotenak atxikimendu eske!

Doako kultura ezinezkoa da. Lokala, estudioa, ekoizpen prozesua, instrumentuak eta abarrak doakoak dira, ala? Ez da inor aberasten ari. Alderantziz, askotan erromantikoegiak gara.

“Euskadin rock and rollak ez du inoiz dirurik emanen...”

Oholtzara igotzen dena parrandero hutsa dela dirudi, eta kantatzearen truke parranda

doan daukanez, ez dadila kexatu! Festibaletan taldeei gutxiago kobratzeko eskatzen zaie, baina zergatik ez zaie San Miguel edo Coca-Colakoei beherapenik eskatzen?

Badakizu, lanbide batzuk ez dira serio hartzen eta...

Ingalaterra edo Frantzia musikariak langabezia daukate, hemen... Pentsa, autonomo egiten bazara toreroen epigrafean eman behar duzu alta!

Ba azkenaldian zuek entzun eta “Ole Zea Mays!” dio jendeak.

Asebetetzen gaituena egiten dugu, transmititzeko geuk sentitu behar dugulako, sentitzen ez duzuna kantatuz ez duzulako inor konbentzitzen. Beti ibili gara gure beharrianak asetzen, eta azkenean, publikoak ere onartu ditu beharrian horiek.

Irauten duen oasia zarete arrakastarako formatutako produktuen desertuan...

Beti izan dugu konstantzia bat, baina ez burugogorrek garelako bakarrik, publikotxo beti izan dugulako baizik. Gertatu behar direlako gertatzen dira gauzak, eta agian, lehen diskoarekin sekulako arrakasta lortu bagenu, gaur egun Zea Mays ez litzateke existituko.

Baina astroak alineatu zaizkizue eta...

Ez gaude ez besteak ez gure buruak izorratzeko. Taldea denok bihotzez elikatzen dugun esfera purua da, eta ezin dugu kutsatu. Horregatik lan egin nahi dugu lagun on eta xumeekin. Bestelakoekin, ezta bost minutu ere. Ez gaude txorakerietarako. ■

Barandiaran Museoa

Ahozko ondarearen gordailu irekia

Aurten beteko dira 20 urte Joxemiel Barandiaran hil zela eta bere izena daraman museoak oraintxe bete du lehen urtea. Ataunera hurbildu gara eraikina bisitatzera eta berehala konturatu gara, Barandiaranen museoak eraikina gainditzen duela, askoz zabalagoa dela.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Argazkiak: Dani Blanco

KONDAIRAK DIOenez, Ataungo herritarrak eliza egiteko asmotan zebiltzan, eta gaur egungo hilerria dagoen Mendiola gaintxoia iruditzen zitzaion horretarako lekurik egokiena. Harriak haraino gurdiz garraiatzen hasi ziren, baina egunez bertaraino igotako harriak, gaur egun San Martingo eliza dagoen lekuan agertzen ziren goizean. Hurrengo egunean kristauk harriak atzera gurdian kargatu eta Mendiola eramaten zituzten, baina gauez, behin eta berriro, norbaitek leku berera eramaten zituen. Jakin-minari ezin eutsita, alboan zegoen Zaindegi Etxeko atsoa zelatan egoten zen eta, halako batean, harriak gauez jentilek eramaten zituztela ikusi zuen. Jentilak ere konturatu ziren atsoak ikusi zituela eta biraoa bota zioten: “Aida zurie, aida gorrie, zelatan dagon andra horri ataiok ezkerreko begie”. Atsoak begia galdu zuen, eta San Martingo eliza jentilek nahi zuten lekuan dago gaur egun.

Hortxe hasten da Barandiaranek hain maitea zuen herri-bidea, San Gregoriora eta, beraz, museora garamatzana. Baina museo berrira iritsi baino lehen Peruenezar baserria dago. Hantxe jaio zen Barandiaran, 1889ko azken egunean. Eta aurrerago, herri-bidetik aldendu gabe, Sara Etxea dago. Han hil zen 102 urte bete baino hamar egun lehenago. Joxemielek berak eskatuta, gorpua herri-bide



BARANDIARAN MUSEOA

horretan aurrera eraman zuten San Gregorioko hilerriaraino. Eta Barandiaranen etxe berria, iaz zabaldu zuten museoa, Sara Etxearen eta hilerriaren artean dago, XVI. mendeko Larruntza errota zaharberrituan.

Duela ia 20 urte, Joxemiel hil eta berehala sortu zen haren omenezko zerbait egiteko asmoa. Bittor Oroz Ataungo jarduneko alkatearen hitzetan, “Barandiaran oso garrantzitsua izan zen Euskal Herrirako nahiz Ataunerako. Elite intelektualaren parte izan arren, herrian oso txertatua zegoen. Ezinbestekoa zen hari oroitzatza egitea, eta bere ekarpena ez galtzea”. Ataun bitarteko ekonomiko txikiko herria izaki, bitarteko horiek bildu eta azken bi legegintzalditan gorpuztu da egitasmoa. San Martin eta San Gregorio auzoen artean eraikin berri bat egitea pentsatu zuten arren, bisitariek beste azpiegiturak balia zitzaten egokiagoa iritzi zioten auzoetako batean kokatzeari. Barandiaran San Gregoriokoa zen eta, beraz, auzo horretan egitea zen egokiena. Larruntza errota zaharra hantxe zegoen, Sara Etxearen eta hilerriaren artean eta, bide batez, eraikina berreskuratuko zuten.

Museoaren edukiak erabakitzeke Jexux Altuna, Barandiaran pertsonalki eta profesio-

nalki ederki ezagutu zuen arkeologoa buru zuen lantaldeak erabaki zituen. Informazioa biltzen bi urte eman zituzten, eta museoa antolatzen, beste lau. Eta, horrenbestez, museoak duela urtebete zabaldu zituen ateak, iazko ekainaren 12an, hain zuzen.

Museo betea

Museoko atarian errotarriek ematen diete ongietorria bisitariei eta, atean, eguzki-loreak. Bisita goiko solairuan hasten da, sabaiko egurrezko habeen azpian, 15 bat minutuko ikus-

entzunezkoarekin. Barandiaranen bizitza eta ekarpena laburbiltzen ditu: kristautasuna eta sustrai paganodun mitoak naturaltasun osoz nahastu ziren haurtzaroa; apaiztegiko garaiak; Leipzigeiko unibertsitatean, psikologia zientifikoaren sortzaileetako batek, Wilhem Wundt irakasleak Joxemielen herrian, hizkuntza eta kultura bakanak

zituena herrian ikertzen hasia gomendatu zionekoa; inguruan entzundako kondairan oinarrituta Aralarren lehen trikuharria aurkitu izana; Aranzadi, Eguren eta hiruak, indusketa lanetan murgildu eta “hiru troglodita goibelak” bihurtu zirenekoa; Gerra Zibilak behartutako erbestaldian, New Yorkeko Columbia Unibertsitateko katedra bati muzin

Barandiaran San Gregoriokoa zen eta, beraz, museoa han egitea zen egokiena. Larruntza errota zaharra hantxe zegoen, Sara Etxearen eta hilerriaren artean eta, bide batez, eraikina berreskuratuko zuten

Aita Barandiaranen etxeak

Sarako erbestaldian, herriminak jota, Barandiaran Larrungo tontorrera igotzen omen zen, handik Ernio ikusten baitzen, eta Ernio gailurretik, aldiz, bere etxea, Peruenezar.

1953an, hamazazpi urtez jaioterria zapaldu gabe eman eta gero, 63 urte zituela, Hego Euskal Herrira itzultzeko aukera izan zuen azkenean.

Ataungo herri-bidean, familiako lur-sail batean, Sarako Bidarte Etxeko planoetan oinarrituta, etxe berri bat jaso zuen, Sara Etxea. Eta han bizi izan zen hil artean.

San Gregorioko hilerrian, Joxemielen eta bere iloba Pilarren hilotzak elkarren ondoan daude, eta beraien izenak daude idatzita. Baina parean, Barandiaranek berak disei-

natutako hilarria dago zutik, eta bertan ez dago haren izen-abizenik; soilik “Sara Etxea” jartzen du.

Euskal kulturaren etxea ez da soilik gizabanakoaren erreferentzia, euskal kulturaren etxea sakratua da, bizidunen zein hildakoen nukleo espirituala. Horregatik, hilerrian, berak propio diseinatutako hilarrian, etxearen izena ipintzea erabaki zuen.

ARGIAKO ARTXIBOA



Ezkerretik eskuinera, Peruenezar baserria, Sara Etxea, Barandiaran Museoa eta Barandiaranen hilobia.



egin eta Saran aho ondarea eta aztarnategiak ikertzen jarraitzea erabaki zueneko....

Alboko gelara sartu eta Barandiaranen liburutegia dugu aurrez aurre. Ez berak bildutako liburu sorta, berak idatzitako lanen bilduma baizik: 575 idazlan argitaratu zituen 75 urtez lanean arituta. Gainera bere egunkaria dago kontsultagai, zortzi liburukiz osatutako egunkari digitalizatu. Ez da egunkari pertsonala, egindako ikerketen xehetasunak jasotzen dituen eskuizkribua baizik. Gela berean, 100 urte zituela etxeko sukaldean grabatutako elkarrizketa ikus daiteke. Txoko hori Barandiaranek euskararekin zuen harremanari eskaini diote, eskolan hasi eta gaztelania inposatu izanaren kontuez ari baita solasaldian. Aita Barandiaranek bospa-sei hizkuntza menderatzen zituen eta egia da, eskolan hartutako ohiturak eraginda-edo, gehienetan gaztelaniaz idazten zuela. Baina une jakin batzuetan, esaterako Gerra Zibila piztu zenean, egunkarian bere errebindikazio pertsonalak jasotzerakoan, euskarara jotzen

"Honaino iritsi izan bagina inork ondare hori jaso gabe, arazoak izango genituzko gure identitatea nabarmentzeko"

BITTOR OROZ, ATAUNGO JARDUNEKO ALKATEA

zuela. Azkenik, museoaren atal honetan egin zizkioten omenaldien berri ere jasotzen da.

Induskatu eta entzun

Aita Barandiaranek ahozko aztarnak nahiz arrasto materialak aztertu zituen, eta bi eremu horien isla da museoaren beheko solairua.

Lehenik Euskal Herriko mapa bat dago, puntu gutxi batzuk piztuta dituen mapa. Puntuak Barandiaran arkeologia lanetan hasi baino lehen induskatuta zeuden aztarnategiak adierazten dituzte. Maparen alboko botoiari sakatuz gero, Joxemielek induskatutakoak pizten dira, eta mapa puntu gorriaz betetzen da, Gipuzkoan eta Iparraldean batez ere. Ondoren, aztarnategi zati baten erreplika dago, induskatzeko tresnak eta guzti, Barandiaran eta enparauek nola jarduten zuten erakusteko. Eta aztarnategitxoa "hiru troglodita goibelen" argazkiez inguratuta dago. Barandiaranen beraren esanetan, trogloditak zirela esan zitekeen, kobazuloetan aritzen zirelako, baina goibelak, inola ere ez.





Barandiaranek, 75 urtez lanean jardunda, 575 lan argitaratu zituen eta guztien bilduma museoa jasota dago (ezkerrean). Gainera, egunkari batean egindako lanaren emaitzak eskuz xehe-xehe jasotzen zituen eta egunkariaren zortzi liburuki digitalizatuak kontsulta daitezke (eskuinean), eskuizkribu originalak zein transkripzioak.

Goibeltzekotan, Gerra Zibilak goibeldu zituen, 1936tik aurrera Aranzadi, Barandiaran eta Eguren ez zirelako sekula berriro elkarrekin arituko. Beste lankide batzuk izango zituen ordea; argazkietan, esaterako Jexux Altuna gaztea agertzen da.

Ondoren, teknologia taktila erabiliz, hegaldi birtuala egin daiteke Aralarretik. Alegia, hatzak pantaila gainean mugituta Aralarko megalitoak hegan bisitatu ditzakegu, horiei buruzko azalpenak jaso bitartean.

Ahozko aztarnen eremuan, aurikularrak jarri eta Joxemielek bildutako hainbat kondaira Barandiaranen beraren ahotsean entzun ditzakegu. Eta, ondoren, bere museoak ez ezik Joxemielek ere teknologia berriak erabiltzen zituela baieztatuko du bisitariak: 1928an berak grabatutako bideo bat dago ikusgai. Bertan, baserriko atarian gizon bat ageri da hainbat jardun magikori buruzko azalpenak ematen. Joxemielen aita izan daitekeela uste dute eta, besteak beste, tximistaren kontra zer egiten zuten azaltzen du.

Larruntzako hormez harago

Larruntzaren alboan beste eraikin bat dago, harrera gunea. Beheko solairuan harrera zerbitzua, turismo bulegoa eta denda prestatu dituzte eta, aurki, goiko solairuan Joxe Martin Apategi dokumentazio zentroa zabalduko dute, Joxemielen lanean sakondu nahi dutenentzat.

Larruntzaren atzean, aldiz, Errotatxo dago. Bere garaian zerratokia eta errota izan zena eraberritzea erabaki zuen Udalak. Gaur egun bisitariak berriro ere martxan ikus dezake. Gainera, Barandiaranek jasotako zenbait ipuin entzuteko aukera ere badago. Herriarren parte-hartzea funtsezkoa izan da errontan, Ataungo erretirodun talde batek hama-

bostean behin, auzolanean, kanala garbitu eta errota martxan jartzeko konpromisoa hartu baitute.

Museoaren egitasmoa bultzatu zutenek argi zuten ez zutela eraikinaren lau hormetara mugatu behar. “Ataunen, ahozko transmisioa ez da erabat galdu, eta hori oso leku gutxitan dagoen altxorra da”, dio Bittor Orozek. “Elementu etnografiko asko gorde dira gainera.

Etxeetan elorri zuriz egindako gurutzak eta eguzki-loreak ikusten dira. Inguruan megalito mordoa dago... Erakusketa puntu bat beharrezkoa zen, baina ez genuen bisitariak inguruko altxor horiek galtzerik nahi”. Hala, museo hedatuaren kontzeptuari jarraiki prestatu dute museoa eta bisitariak ingurua ezagutzera bideratzen dituzte.

Geografikoki ez ezik, museoak era guztietako publikoarengana zabaltzea du xede. Barandiaranen bizitza eta lana laburbiltzen ditu, baina badira bertan azaltzen den informazioa aurrez ezagutzen dutenak eta horregatik zabalduko dute dokumentazio zentroa. Horrez gain, haurrengana ere iritsi nahi dute eta tailer bereziak prestatu dituzte haienentzat: Historiaurreko lanabesak egiteko tailerrak, sua nola egiten zuten erakusten dutenak, ipuin kontalarrien saioak... “Gaurko haur gehienek ez dakite Barandiaran zein zen. Gainera, orain dela gutxi arte ahozkotasan, tradizio, kultura ez-material aberatsa eta berezia izan dugu eta hori ere transmititu behar zaie, ez soilik Joxemielen figura” dio azken zortzi urteetan Ataungo alkate izan denak.

“Joxemieli sekula ezin izango diogu ordaindu egin zuen guztia. Sekula ez gara konturatuko egin zuenak zer garrantzia izan duen guretzat”, dio Orozek. “Gaur egun daukagun globalizazio basatiak gure kultura uniformizatzeko arriskua dakar. Eta honaino iri-

Harriak ez dira isiltzen, ahotsak bai

Museoaren aurkezpen ekitaldietako batean Jexux Altunak esan zuen Barandiaranek, arkeologian lan izugarria eginagatik, arlo horretan bere lanak ez duela hainbesteko garrantzirik. Aztarna materialak, berak aurkitu edo induskatu ez balitu beste norbaitek egingo zukeela, gero ere han egongo zirela, alegia. Altunaren ustez, Barandiaranen garrantzia ahozko ondarea bildu eta gorde izana da.

XIX. mendean euskal mito eta kondairak galtzen hasiak ziren. XX.eko bizimoduak ia erabat desagerraraziko zituen eta, Aita Barandiaranek Wundten gomendioari jarraitzea erabaki arte, ondare hura ez zegoen inon jaso. Museoko ikus-entzunezkoak dioten moduan, "handik gutxira inork ez zion Ilargiari Ama deituko". Euskal kultura erasotzen eta ukatzen zen garaian, ahoz transmititutako ondareak zeukan garrantziaz konturatzeko gai izan zen. Bere kezka nagusia ez zen

bildutakoa interpretatzea, horren inguruan teoriak sortzea; desagertu baino lehen biltzea zen lehenetasuna. Antzinako euskal kultura, ordura arte soilik ahoz transmititu zena, jaso eta ondorengo belaunaldien esku utzi zuen, azter zezaten.

Eta, gainera, bilketa lan erabat sistematikoa eta zehatza burutu zuen. Esandakoa hitzez hitz transkribatzen zuen, eta ahalik eta infor-

mazio zabal eta zehatzena lortzeko prestatu zuen galdetegia gaur egun berak sortutako Etniker taldeak erabiltzen du oraindik.

Esamolde ezagun batek dio herri indigena bateko zahar bat hiltzen den bakoitzean liburutegi bat desagertzen dela. Bada, Joxemiel Barandiaranek herri honen sustaiak eta mitoak heriotzatik erreskatatu eta liburutegi bihurtu zituen.



Bere omenezko museoan Joxemiel Barandiaranek jasotako hainbat kondaira bere ahotsean entzuteko aukera dago.

tsi izan bagina inork ondare hori jaso gabe, arazoak izango genituzke gure identitatea nabarmentzeko". Eta museoaren xedea, informazio hutsa emateaz gain, sentimenduak sorraraztea ere badela gaineratu du.

Museotik San Gregorio hilerrira joan gara, hantxe daude ehortsita Joxemiel eta Pilar Barandiaran, Sarako erbestalditik hil arte alboan izan zuen iloba. Eta triangela atzera Sara Etxera joanda osatu dugu. Amaitzeko, Sara Etxeko ataritik errepidera abiatu gara, sagarrondoak ezker-eskuin. Behin, latineko azterketa ederki egin ondoren, Joxemiel gaztea etxera harro-harro itzuli zen. Semea-

ren harrokeria baretzeko, amak baserriko atera eramane zuen. Peruenezarrek ate aurrean ere sagarrondoak zeuden, fruituen pisuaren eraginez adarrak makurtuta zeuzkaten bi sagarrondo. Orduan, amak zera esan zion adarrei buruz: "Zenbat eta beteago, orduan eta apalago".

Barandiaran Museoa eta bere etxea fisikoki atzean utzi arren, Barandiaranek, beti apal, edukiz bete zuen etxea udalerriaz harago, jentilek nahi zuten tokian eraikitako elizaz harago hedatzen da, ikusi berri dugun mapan pizten diren argi gorri guztietara, kondairen bila ibili zituen txoko guztietara iritsi arte. ■



Dive Tarpoon urpekaritza




Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com

José Bové

«Demokrazia berrasmatu behar da»

“Non hago? Zein larretan...”

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Larzac-eko eremu militarren hedapenaren aurkako ia hamar urteko borroka kontatzen duen *Tous au Larzac* filma aurkeztu berri duzue Cannes-en. Nola gogoratzen duzu borroka hura?

Armadaren aurka ezin duzu batailarik planteatu, beraiek baino aztiagoa izan behar duzu nahitaez. Borroka hura irudimenez eta sormenez irabazi genuen, orduan ekintza molde aski berriak zirenak erabilita. Oso hezitzailea izan zen niretzat, 18 urterekin murgildu bainintzen bertan, eta nire formazioaren ezinbesteko aroa suertatu zen. Garaipen hark aitzina jotzeko grina piztu zuen nigan, jendearen arteko batasuna eta inplikatu ez haragoko interesa pizteko gai ginen momentutik indar harreman positiboa barreiatzen zela ohartu nintzelako, eta horri esker soilik irabazi dezake Davidek Goliaten aurka. Ez dakit protesta eta aldarrikapena senean daramatzadan, baina gauzak nire kontzientziaren edo nire ustez izan behar luke tenaren aurka egiten direnean hil ala bizikoa zait erreakzionatzea. Hala hezi ninduten, hala eraiki dut nire nortasuna, eta hala egin dut aurrera. Zentzu horretan, biziki arrakastatsua izan zen Larzac-eko borroka. Ez guretzat soilik, sasoi hura ezagutu ez zuten anitzentzat ere motorra izan dela esango nuke.

Norena behar luke lurrak?

Ez dut horrekiko dogmatismorik, ez dago kasuistika idealik. Maxima bakarra dago, lurra lurra landu nahi dutenen esku egotea, eta ororen gainetik laborantza lehenestea. Nekazal lurrek laborari anitz enplegatuz elikagaiak ekoizteko balio behar dute, lurraren egoera kontraktuala edozein dela ere. Izan liteke jabetzan, alokairuan, jabetza kolektiboan... Ez zait inporta. Lurraren erabilera da garrantzitsua, ez lurraren jabetza. Izan ere, ez

badugu nekazal lurren erabilera ziurtatzen, zer gertatuko da hurrengo belaunaldia laborantzari lotu beharrean lur horietan etxeak eraikitzen hasten bada? Horrexegatik bermatu behar da nekazal lurren nekazal erabilera. Ez daitezela espekulazio tresna izan.

Laborari gazteak ezin plantaturik dabilta.

Lurra eros ditzakeen laborari gazterik ez dago. Alogeraren hedapena erraztu behar dugu, eta batez ere, lur-jabe batek bere lurra alokatzea erabakitzen duenean, sistema klasiko zein berritzailean plantatu nahi duen gaztea hobetsi dezala jadanik soro andana duten laborari industrialengana jo beharrean. Ezinbestekoa iruditzen zait alokairuan plantatzeko irizpidea finkatzea, denok baitakigu jabetzan hastea ezinezkoa izateaz gain iraingarria dela gaur egun. Zer zentzu dauka lur batzuetan dirutza inbertitzeak gero hurrengo belaunaldiari saltzeko, eta hurrengoak hurrengoari, eta... Hori bankuari baizik ez zaio interesatzen!

Laborari ttipien geroa beltz ikusten du askok.

Egungo nekazal politikaren erreformaren erronka nagusi bat da. Europar dauden 14,5

Nortasun agiria

Talence-n (Frantzia) sortu zen 1953ko ekainaren 11n. Urtetan Nekazarien Konfederazioko eta Vía Campesinako sindikalista, egun eurodiputatu eta mugimendu altermundialistaren aurpegi ezagunenetakoa da. Liburu zenbaiten egile, Cannes-en aurkeztu eta udazkenean aretoetan izango den *Tous au Larzac* filmaren protagonistetako bat ere bada.





milioi laborarrietatik 12,5 milioik bost hektarea baino gutxiago ditu. Zer esan nahi du horrek? Errealitatearen zati itzel bat dela laborari ttipiena. Ez dakidana da gai izango garen mahai gainean ukabilkada jo eta esploztazio horiek etorkizun ekonomiko, sozial eta ingurumen mailakoa dutela onartarazteko. Baietz espero dut, horiek baitira enplegu lokalak sortzen, geruza sozial koherenteak ehuntzen eta biodibertsitate kultibatua ahalbidetzen dutenak. Prozesu osoa ipurdiz gora botatzeko tenorea da. Orain arteko Europako nekazal politikak hori bakarrik babestu duen arren, laborantza industrialaren logikatik atera behar dugu, gertuko laborantza bultzatuz, zirkuitu laburrak zainduz eta unitate txiki eta ertainak mimatuz. Horretarako ezinbestekoa da gizartean ematen ari den mentalitate aldaketa akuilatzea. Denok ikusten dugu inportazioaren logika jendearen, eta bereziki jende xumearen interesen aurka doala. Horregatik, ez gaitezen engaina, ez dago Europarik laboraririk gabe. Ez badago nekazaririk, nola izango gara burujabe? Nola garatuko dugu gure subiranotasuna, multinazionalen eta gurera inportatzen duten herrialdeen menpe bagaude? Laborari eta laborantza ttipien defentsa hil ala bizikoa da elikagaien subiranotasuna lortzeko, edozein proiektu politikoren ezinbesteko oinarria horixe dela jakinik.

Multinazionalak eta laborantza industrialak aipatzen dituzuno, nola borrokatzen da genetikoki edo jitez aldaturiko organismoen aurka?

Deus baino lehen, jitez aldaturiko organismoak irtenbidea ez izateaz gain, pestizida ekoizle erraldoientzat euren pestizidei egokitutako haziak saltzeko modua direla jabetu behar gara. Bestalde, gaur egun genetikoki eraldaturiko organismoen aurka borrokatzea hazien pribatizazioen aurka jazartzea da, haziak kontrolatu

Jatetxe, kiroldegi, bulego, pasealeku... Hiri bat da Europar Parlamentua. Bidegorriak proposatzen dituenari errezeloz begiratzen zaion hiri bat.

"Espainian bezala, 25 urtez azpikoen %48a langabezia dagoenean, ez dago errebolta beste biderik. Gure patua berriz gure esku hartzeko kontzientziatzen ari gara"

nahi dituzten multinazionalen rol zapaltzailearen aurka egitea, eta multinazional horiek gure ingurumena eta osasuna arrisku gorrian jartzen dutela konturatzea. Geroz eta ikertzaile eta mediku gehiago bat datoz esaterakoan pestizidei loturiko minbizi kasuak areagotzen ari direla, eta, ingurumenak osasunean geroz eta pisu handiagoa duenez, eritasunak kale-kantoiari zain dauzkagula. Horregatik, jitez aldaturiko organismoen aurkako borroka ingurumen suntsitzearen aurkako borroka da, baina baita pertsonak xehatzearen kontrako borroka ere. Guda global bat da, laborantza arautu dezaketen lege agronomoei bizkarra eman dien laborantza produktibistaren aurkakoa. Baina kontzientzia hartzetik hasten da dena. Hortik soilik isuri daiteke moratoria bat erdietsi dezakeen indar harreman bat. Etengabeko eta betiereko arreta eskatuko digun gaia da, firma erraldoi horiek beti baitaude atezuan, parean jartzen zaiena baztertu eta merkatua irensteko prest.

Funtsean, ez al gara botere ekonomikoa botere politikoa baino indartsuagoa den sisteman bizi?

Argi eta garbi. Botere ekonomikoak botere politikoei autonomia ematen dira, eta euren kasa aurrera jotzeko arauak sortu dituzte, estatuen zein estatu multzoen gainetik pasaz. Egungo multinazional handiek estatu askorenak baino aurrekontu handiagoak dituzte. Kontra-botererik ez dagoen bitartean beraiek aginduko dute, beraiek erabakitzen eta erabakiarazten duten munduan biziko gara. Horri modu desberdinez egin dakioke aurre. Batek, herritarren boterea dago, bakoitzak hautatu dezake zer jan, zer erosi, zer boikotatu. Bestetik, monopolioaren logika puskatzen duen edo multinazional horiei haziak pribatizatzea zailtzen dien Europa mailako politikak diseinatu daitezke. Hazien pribatizazioa debekatzen badugu, sistema espekulatzailerik

ezingo du funtzionatu eta multinazionalen orain arteko eskema guztiak irauliko dira. Baina hori borondate politiko baten menpe dago, eta normalean, borondate politikoak herritarren borondateak bultzatuta baizik ez dira agertzen. Horregatik herritarrei dagokie indarra erakustea, politikariek botere ekonomiko horiek makurrarazi ditzaten.

Lobby ekonomiko horiek ez dira hain erraz makurtzen, ordea. Mundu guztiak daki Monsanto-k zer egiten duen eta hortxe jarraitzen du.

Lobby ekonomikoek euren lana egiten dute, une oro ahal bezainbat diru irabazten eta ahal beste botere eskuratzen saiatuz. Joko-arau batzuk inposatzen saiatzen dira, euren interes ekonomikoentzat onuragarriak direla jakinik. Horren aitzinean ez zaigu inurri lanean jarraitzea besterik geratzen. Haziak pribatizatzerik ez duten egunean jitez aldatutako organismoak desagertuko dira, inbertsioen osteko etekinak desagertuko direlako. Pribatizatzeko horrek ahalbidetzen die Monsanto eta besteei haziak saltzen dituzten laboraria hurrengo urtean hazi horiek erostera behartzea, bere uztaz berriz ere beharrean. Gertatzen ari dena izugarri larria da, eta horri aurre egiteko, ez dago mobilizatu eta gain-gaieran egotea besterik.

Azken hilabeteotan munduan gertatu direnak ikusirik, mobilizazioen urrezko garai batean sartu garela dirudi.

Krisi garaian gaude, urtetik urtera jende gehiago kolpatzen duen egoera batean, eta garbi dago goiz ala berant nazkak gaina hartzen duela. Esanguratsua iruditzen zaidana da, udaberri arabiarrean kasu, belaunaldi berri bat altxa dela eta berak lortu duela diktadurak makurtzeko mugimenduak abiaraztea. Hori hala, Espainian edo Europako beste estatu batzuetan, jendea nazka-nazka eginda dago eta ez du inolako etorkizunik ikusten. Espainian bezala, 25 urtez azpikoen %48a langabezia dagoenean, ez dago errebolta beste biderik, ez bada fatalismoan jaustea. Eztabaida politiko klasikoenganako sinesmen osoa galdurik, gure patua berriz gure esku hartzeko kontzientziatzen ari gara. Bistakoa da demokraziaren giderrak berreskuratzeko nahikeriaren aurrean gaudela, bukatu dira demokrazia besteen esku uzten genituen garaiak, eta ernetzen ari den itxaropena handia bezain benetakoa da.

Genetikoki eraldaturiko organismo osaturiko plantazioen xehatze ilegalak, Millau-ko McDonald's-aren aurkako ekintza... Diskurtsotik harago jo duzu sarri.



**"Fukushimaren moduko
hondamendien ingurumen eta giza
kostua ikustean argi dago
nuklearrak ez duela merezi. Hori
bakarrik aski da energia
nuklearrari bizkarra emateko"**

Beti saiatu naiz koherentea izaten, eta ekintzak beharrezkoak zirela sentitu dudanean, nire ardurak nire gain hartuta burutu ditut ustez egin beharrekoak. Horrek borroka modu bat, bizitza ikuspegi bat, islatu dezake, baina bakoitzari dagokio bere eztabaida eta erronkak bereganatzea. Argi dagoena da demokrazia berrasmatu behar dela, demokraziaren hodiak estalita daudenean, instituzioak izoztuta eta gaindituta daudenean, herritarrei dagokielako interes kolektibo eta komunaren aurka legeekiko desobedientzia erreakzionatzea. Zilegitasunaren auziak legalitatearen markoa gainditzen du, eta zilegia ilegala izan denean ere nik ez dut sekula dudatu. Baina hori aukera kolektibo batean kokatzen den hautu pertsonala da, eta funtsean, halaxe sortzen dira desobedientzia zibil mugimendu antolatu zein bote-lasterrekoak. Zentzu horretan, XX. men-

deak erakutsi du biolentziak ez dakarrela aurrerapenik, ez duela ezer desblokeatzen, eta biolentzian oinarritzen ziren mugimenduek beraien xedeak bete dituztenean ere, gizarte bortitzak sortu dituztela gerora. Aspaldi esan zuen Gandhik arbola hazian nola, helburua bitartekoetan zetzala. Hori gogoan, heldutasun itzela ikusten dut mugimendu sozial anitzetan, eta arabiarrek mugimendu baketsu eta herrikoiekin diktadurak kanporatu dituztela frogatu badigute, dena da posible.

Fukushimakoaren ostean, energia nuklearraren azkenak posible zirudien, baina enegarrenez, hautsak tapiz azpian gorde, eta denak berdin jarraitzen du.

Txernobylen ondoren gertatutakoa normalizat hartzeko eskatu ziguten, hiltzear zegoen sobieten sistema komunistan gertatu zelako, eta gu gaitz guztietatik salbu geundelako. Baina Fukushima Japonian dago, herrialde industrializatu eta teknologikoki aurreratuenetako batean, eta horrek garbi frogatzen du inor ez dagoela hondamendi teknikoa dakarren arazo naturalen pilaketatik libre. Orain, esaterako, Frantzia lehortea handia pairatzen ari da, bertako 52 zentral nuklearretatik 38 ibai bazterretan daude, eta agian udan zentral horiek itxi beharko dira hozte sistemak kale egingo dutelako. Hori hala, auskalo zer gerta daitekeen erreaktoreekin. Urrunago joanez, Frantzia hamar zentral arrakala sismikoen gainean eraikita daude, eta orain arte lurrikararik egon ez izanak ez digu bermatzen geroan izango ez denik. Horrek nuklearraren segurtasunaren eztabaida pausatua uzten du, eta halako hon-



AZKEN HITZA

Aitzakia

“Estatuek arazoak Europatik datozela eta eurak gure interesak babesten saiatzen direla saltzen digute herritarroi. Hori gezur handia da. Estatuek Europa aitzakiatzat erabili arren, beraiek daude Europaren eraikuntza eta kudeaketaren aurrean”.

damendien ingurumen eta giza kostua ikustean argi dago nuklearrak ez duela merezi. Hori bakarrik aski da energia nuklearrari bizkarra eman behar zaiola esateko, alternatiba energetikoen bila joan eta kontsumoa gutxitzen duen garapen eredu bat plantan ezartzeko.

Betiko interesak agertu dira, alabaina, fracking edo eskisto gasaren aferaren azpian.

Hori ere, Frantzian gertatu arren, mundu mailako borroka bat da, munduko petrolio eta gas enpresa erraldoien esplotazio eta ustiapenen aurkako borroka baita. Lur andana berenganatzen saiatzen ari dira beraien mesedetan erabiltzeko. Orain arte, modu klandestinoan lortu dituzte lur horiek eskuratzeko baimenak, eztabaidarik gabe, azken gas edo petrolio tantaren xerka joan behar genuen plaza publikoan deliberatu gabe. Hori gutxi ez eta arazo demokratikoaz gain, pro-

blema teknologiko batekin egiten dugu topo, frakturazio hidrolikoa baita produktu horien bila joateko modu bakarra eta hori biziki arriskutsua da lurraren hainbat geruzarentzat. Jendea arras fite mobilizatu da, eta argiki hautatu du ura eta petrolioaren artean. Jendeak badaki deus egin ezean, hemendik gutxira ura kutsatua izanen dela eta bere herriak abandonatu beharko dituela.

Mobilizazioak mobilizazio eta ekintzak ekintza, batzuek esango zizuten kalea dela lider altermundialista baten lekua eta ez Europar Parlamentua.

Ez nago inori leziorik emateko, baina Europako nekazal politikaren aurka 30 urtez borrokatu ostean, benetako aukera bat daukagu instituzio horietan sartu eta gauzak errotik aldatzeko. Bistakoa dena da, alta, lorpenak instituzioetan eta instituzioetatik kanpo egin dezakegunarekin bat egitetik jinen direla. Espero dut gai izango garela letrak aldatu eta lerro nagusiak berridazteko eta salatu beharrekoak beste oihartzun batekin salatzeke. Gure borroka moldea ez da aldatu. Gu parlamentu honetara indar korrelazio berriak sortzera gatoz, eta horretarako, mobilizatuta segitzen duten mugimendu autonomoak behar ditugu. Horien lanak bihurtzen gaitu eraginkor. ■

argia.com Elkarrizketaren bideoa ikusgai, gure webgunean.



www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com



EUSKARA zure aukera

• Gela Egonkorra •

Ikaslearen beharretara egokitzea helburu

Laudio Ikastolak, aurtengo Araba Euskaraz jaiaren antolatzaileak, haur guztien integrazioa bultzatzeko asmoa duen baliabidea jarri du martxan: Gela Egonkorra. Premia berezi eta larriak dituztenei ikasketetan laguntzeko bidea da.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco



HEZKUNTZA PREMIA BEREZI ETA LARRIAK dituzten ikasleei zuzendutako gunea da Gela Egonkorra. Ikastetxe publikoetan badute halakorik, baina Laudiokoa da mota honetako ekimena martxan jartzen duen lehen ikastola. Baliabide egokituak erabili arren ohiko gelan erritmoa jarraitu ezin duten haurrak hartzen ditu Gela Egonkorrak. “Orain arte ohiko gelan aritu dira, baina urteak pasa ahala ikusi dugu dituzten premiak ez direla asetzen bertan dituzten aukerekin”, diote Leire Burdain eta Zuriñe Garcia Gela Egonkorraren arduradunek.

Gune honetan ez dago ohiko geletan bezalako irakasgairik. Batetik, autonomia eta komunikaziorako gaitasuna bezalako arloak jorratzen dituzte. “Beraien jarrera eta jokatzeko modua lantzen dugu klasean”. Bestetik, ikaske-ta trebetasunak lantzen dituzte, beste gelatan landu ohi diren gaiak. Oso eskola dinamikoak dira eta gelaren egitura eta gauzen kokapena beraien beharren arabera da. Beharrezko dutena baino ez du gelak, gauza gehiegirekin kontzentrazioa galtzeko arriskua dagoelako.

Zuriñe Garciak kontatu digunez, zenbait ordu materiala prestatzen pasatzen du: “Materiala guk egiten dugu eta hori da zailena. Bakoitzaren premiei erantzun behar zaienez, material pertsonalizatua eta egokitua egin behar dugu. Ulermen arazoak dituzten ikasleei, esaterako, argazki eta piktogramen bitartez azaltzen dizkiegu lantzen ditugun gaiak”. Aldez aurretik lan handia suposatzen duela diote, hasiberriak direnez ez dagoelako aurretik sortutako material zehatzik. Ahal duten moduan, ikasleen gaitasunaren arabera gaiak jorratzen dituzte, moldatutako materialarekin. Gainera, sortze urtea izanik, gorabeherak izan dituztela diote, irakasleek ulertu egin behar dituztelako proiektuaren nondik norakoak, eta erakutsi behar

izan dutelako Gela Egonkorra dela haur horiek izan dezaketen baliabide egokiena.

Gela Egonkor bakoitzean gehienez bost haur egon daitezke eta maila desberdineko haurrak egoten dira gela berean, baina egiten dituzten lanak banakakoak dira, batzuk berdinak dira eta beste batzuk ez. Gaur egun, hiru ikasle dituzte: Oier Azcaray (8 urte), Jon Camacho (10 urte) eta 11 urteko neskato bat. Ikasle hauek Gela Egonkorrean ematen dituzte ordu gehienak, baina beste geletan ere izaten dira, gainerako ikasleekin harremana mantentzeko. Haur bakoitzaren egoerak zehazten du batean eta bestean pasa dezakeen denbora. “Badugu garun paralisia duen ikasle bat, ezin ditu eskolak besteen erritmoan jarraitu, baina gainerako ikasleekin harremana izan dezan, beste geletara joaten da. Besteen kasua ezberdina da, matematika, irakurketa-idazketa, musika, plastika eta mota horretako ikasgaiak jarrai ditzakete, ohiko geletako ikasleekin bat egiten dutenean; beraz, helburu akademikoa ere izaten du Gela Egonkorretik ateratzek”, azaldu digu Burdaine. Beti ere, eguneko zenbait ordu beste kideekin pasatzen dituzte guztiek, hiru ikasleak ohiko gelara mugituta edo, alderantziz, gainontzeko haurrak Gela Egonkorrera eramanez. Hori horrela, ikasleek ez dute denak elkarrekin zeuden aurreko urteekiko aldaketa handiegirik sumatu.

Denak denekin

Ikasleak ohiko gelara joaten direnean, sarri zeregin pertsonalizatuak dituzte, bakoitzak berea eta besteenaren antzekoa, baina irakasleek azpimarratu dute garrantzitsua dela beste geletako haurrekin harremana izatea. Lehen urtea izanda, esperientzia pixka bat gehiago falta da oraindik, baina Burdaine dioenez, “ekimen ezberdinak egin nahi ditu-

Lagunen aurreko irakurketan, ikaskidea laguntzen ari zaio Oierri. Ezkerreko orrialdean, Oier ohiko gelako ikaskideekin.



gu, denek denekin harremana izan dezaten. Gela Egonkorreko ikasleak ere ikastolakoak dira, beste kideekin egoteko beharra eta eskubidea dute, eta hori islatu nahi dugu”.

Ohiko gelako haurren jarrera ere positiboa izan da, behar bereziak dituzten ikasleak ondo zaindu dituzte beti eta aurtengo aldaketa modu naturalean bizi dute. “Guretzako oso pozgarria da ohiko gelako ikaskideak haurrari gauzak azaltzen ikustea. Horrek gauza asko egiteko aukera ematen digu. Gainerakoekin gela berean egotea oso garrantzitsua da, kideen onarpena hor ikusten da”, diote.

Ikastola guztietan bezala, ohiko geletako erritmora iristen ez direnek laguntza gela dute Laudion ere, eta orain arte, hor egon dira premia larriak dituztenak. Ordea, Gela Egonkorra laguntza gela baino bereziagoa da eta ez da zentroka zabaltzen, eskualdeka baizik. PT-a edo behar bereziak dituztenei laguntzeko espezialista (Olaia Hormaetxe) eta hezitzailea (Cristina Aguado) egoten dira bertan, baina espezialista ikasle kopuruaren arabera gela batetik bestera mugitzen da. Hiru ikasleak Gelan daudenean, esaterako, irakaslea eta espezialista egoten dira.

Duela bi urte hasi ziren Laudion Gela Egonkorra martxan jartzeko prozesuarekin, baina lehenago ere beste saiakera batzuk egin zituzten, ikastolan duela urte batzuetatik dituztelako baliabide bereziak behar dituzten haurrak. Berritzegunearekin eta gurasoeekin adostuta, aurrera egitea erabaki zuten. Aholkularitza psiko-pedagogikoa dute Berritzeguneetan, eta horiek arduratzen dira hezkuntza premia bereziko ikasleen diagnostiko-balorazioa egiteaz, ikastola eta orientazio taldea aholkatzeaz, eta baliabideak eskaintzeaz. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, bere aldetik, beharrak aztertzen ditu eta berak du ardura Gela Egonkorra martxan jartze-

Guraso inplikatuak

Jon Camachoren ama da Rosa Roberto, eta bere iritzia eman digu: “Nire semearentzako baliabide egokiena dela argi daukat. Beste geletan konparatuta, haur bakoitzak zuzeneko tratua du, pertsonalizatua, eta egokia iruditzen zait. Gainera, momentu oro gertatzen denaz informatzen gaituzte, aholkatzen didaten pertsonak ditut, eta horrela gero etxean ikastolan landutako hori indartzeko aukera izaten dugu. Nire semea beste Gela Egonkor batean egon zen eta egia esan nahiko antzekoak dira biak. Esperientzia oso onuragarria da, eta oso polita, azkenean Jon hobeto ezagutzeko aukera ematen didalako”.





Oier Azcaray, Gela Egonkorrean Zuriñe Garciarekin.

Egun bat Gela Egonkorrean

- 9:00: Ordutegia osatzen dute egunean zehar egingo dutena zehaztu eta haurrek argi izan dezaten.
- 9:15: Ikasle zerrenda errepasatzen dute.
- 9:30: Ordua eta eguraldia zein diren ikusten dute.
- 10:00: Ipuinen bidez bakoitzak dagokion gaia lantzen du.
- 10:30: Bakarkako lanak eta hirurek batera egin beharreko ariketak uztartzen dituzte. Bakarrik egiteko direnak banakako txokoan egiten dituzte.
- 11:00: Komunera eta jolastokira joaten dira.
- 11:30: Jolas txokora joaten dira, jostatzerara.
- 12:00: Jantokian jango dutena galdetzen zaie.
- 14:30: Bazkaltzetik itzultzean, dinamismoa oinarri duten eskolak nagusitzen dira.
- 15:30: Ohiko ikasgeletara joaten dira, gainerako haurrekin egotera.

ko. “Gure kasuan adibidez, hemen dagoen ikasle batek duela bi urte ikastolatik alde egin behar izan zuen baliabide hau beharrezkoa zuelako eta ez genuelako Gela Egonkorrik”, dio Garciak.

Irakasleen elkarlana

Burdainek nabarmendu du irakasleen arteko elkarlana oso positiboa izan dela, eta lankideek hasieratik garbi ikusi dutela abiatutako ekimenaren beharra. Beste gela bat gehiago dela sentitzen dute, aniztasunaren baitan ikasle gehiago har ditzakeena eta ondorioz alde baikor asko ikusten dizkiote: “Lehen oztopoz beteriko lasterketa zen, ez ginen beren premiak betetzera iristen. Orain, ikasleei behar dutena ematen zaiela ikusteak asko lasaitzen nau”

“Lehen oztopoz beteriko lasterketa zen, ez ginen beren premiak betetzera iristen. Orain, ikasleei behar dutena ematen zaiela ikusteak asko lasaitzen nau”

ZURIÑE GARCIA, GELA EGONKORRA

tan, “ikasleak pixkanaka aurrera doazela eta behar dutena ematen zaiela ikusteak asko lasaitzen nau”. Beraien premiei erantzuten ari direla eta horiei aurre egiteko baliabide eta eskaintza asko dituztela diote, hau da,

orain gauzak sakonago lantzen dituztela. Gainera, laguntza gelako irakasle batek eskolak ematen ditu Gela Egonkorrean ere eta Garciak, bere aldetik, egun batzuetan laguntza gelan ematen ditu eskolak; dinamika hori haurrentzako aberasgarria eta egokia dela iritzi diote.

Datorren ikasturtera begira, ez dute aurreikusitako Gela Egonkorrearen beharra izango duen beste haurrik. Baina eskualdean urte batzuen buruan premia izango dela bada-kite. Horregatik, lehen pauso hauek garrantzitsuak izango dira hobetzen joateko eta etorkizunean sortzen den eskaerari gogor egindako lanetik eta esperientziatik erantzuteko. ■

Balintxarreketeta
Jaletxea

© 94 672 43 50
info@restaurantebalintxarreketeta.com
www.restaurantebalintxarreketeta.com

Malkuartu bidea, 1
01400 Laudio (Araba)

Piccola Pizzeria

on egin!

LAUDION, KATUJA IBARRA 15 (GARDEA)
94 672 8000
www.piccolalaudio.com

Gorbea
taberna

Ugarte, 1
01400 Laudio (Araba)
Tel.: 946722975

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

ZAPARTAGARRIA GERO alderdien bilakera:

BOZEN AITZINETIK

NORGEHIAGOKA

ONDORONGO ITUNETAN

NORGUTIAGOKA

PSN

ESKERRAK PATZIKURI MAILEGUAREN GATIK!

Gu, ezker abertzalekook

B

ai Jose Luis, niri ere kezkarri zait eskui-naren igoera, urdina-ren hedapen bizkor hau. Baina kezkarri zait, orobat, hurbilago sentitzen ditudalako-edo, ezkerrekoak omen direnen zenbait jarrera.

Uxuek zioen ilusioz jaso zuela maiatzaren 15eko manifestazioaren ondotik sortutako akanpaden mugimendua, eta neronek ere horrela jaso nuen. Europa mailako ezkerrean aski barneratuta baitago ikaragarritzko mugak dituela bide instituzionaletik ezkerreko politika benetan eraldatzaileak sustatzeak, eta akanpaden mugimendua ezintasun hori bere egitetik abiatzen zela iruditu zitzaidan. Gurean, ordea, denbora galdu gabe hasi ziren ezker abertzaleko zenbait, kontua hasi eta ordu eskasetara –eta mizkintasun osoz– akanpadak sorbalda petik begiratzen, honengatik eta besteengatik markaje estua egiten.

Jakina, zalantzak izatea zilegi da –neronek ere baditut bat baino gehiago–, jarrera kritikoa izatea bezainbat, baina benetan gogaikarria egiten zait zenbaiten gurasokeria. Batez ere “guk urteak daramatzagu haserre”, “guk hogeita hamar urte daramagu borrokan” eta horrelako gukeriak, zeinak “gu guay gara” eta “asko duzue gugatik ikasteko” mezu harroputzetan laburbiltzen baitira. Besteren egina halez apropiatzeko lehenengo pertsona plural horren erabilera merkea. Izan ere, badirudi norbere burua ezker abertzaleko kide gisa izendatzeak borrokariaren debaldeko labela ematen diola bati zuzenean. “Gu, demokratok” esateak demokrataren debaldeko labela ematen dizun gisa berean. “Gu, ezker abertzalekook” esan eta, agi denez, ez duzu justifikaziorik eman behar, automatikoki kokatzen zarelako borrokaren abangoardian, nahiz eta urtetan egin

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

duzun gauzarik iraultzaileena hautesontzi batean boto ziztrin bat sartzea izan (utzi dizutenean, hori bai). Nahiz eta kultur eredu kontserbadoreenetan (rock erradikal baskoa eta prosa kitsch-purpura) tinko mantendu, nahiz eta ingeniariatza OPUSen edo enpresaritzza Deuston ikasi, nahiz eta antzinako

erresuma baten ikurra eraman golkoan, nahiz eta alde zaharreko magrebtarrei destainaz so egin.

Eta ez dut uste, haatik, ezker abertzalea ezkerreko politikan inori lezioak emateko posizioan dagoenik. Egitan, ez dut uste inori lezioak emateko tokian dagoenik. Baina ez zarete harrituko esaten badut ezker abertzalea –gehiengoa–, maiuskulaz idazten diren auzi nazional handietan tematuta, abertzaleago iruditu izan zaidala maiz ezkertiarra goa baino. Antza denez, zenbaiten aburuz, independentzia erdiestean hasiko baikara kezkatzen lanaren banaketa eta duintasunaz, immigrazioaz, LGBTen eskubideez eta abarrez.

Baiki, ez dut uste, salbuespenak salbuespen, ezker politikei dagokionez, etxaruka hasteko tenorean dagoenik inor hemen. Bartzelonan akanpadetan egon diren ugari ibiliak dira betebetean Bolognaren kontrako mugimenduetan, edo greba orokorrean Espainiako Kreditu Bankuko egoitzaren okupazioan, edo desobediencia zibila muturrera eramanez (Enric Duran). Haiek ere aspaldidanik daude sumindurik. Ez dute inoren nagusikeriazko irakaspenik jasotzeko premiarik.

Eider Rodriguezi irakurri diot pozteko garaia direla datozenak, ez haserretzekoak. Hala bedi, neroni ere poz tuko nintzateke hala balitz, baina ez dadila izan maiteminduren poztasun txepela; batez ere, ez dadila izan norbere buruarekin maitemindua dagoenaren poztasun ezin txepelagoa. ■



‘Gu, ezker abertzalekook’ esan eta, agi denez,
ez duzu justifikaziorik eman behar, automatikoki
kokatzen zarelako borrokaren abangoardian,
nahiz eta urtetan egin duzun gauzarik
iraultzaileena hautesontzi batean
boto ziztrin bat sartzea izan



Ekai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTORE

Ez gara besteak bezalakoak

Ziur ezetz. Gu txakolina gara. Baina zer justifikatzen du horrek? Helburua besteengandik bereiztea bada, txapel horia jarrita atera gintezke kalera, txirula joz. Erraza da besteak bezalakoak ez izatea. Meritu gabea.

Frantziak ijitoak kanporatzen ditu, Espainian Rajoik aginduko du. Gu ez gara haiek bezalakoak, hemen gehiengoak ez du hori nahi. Bai, ona, ados. Horretan bereizteak badauka meritua. Baina ez besteak bezalakoak ez garelako, balio desberdinak ditugulako baizik. Gure balioek erakusten dute, badute, gure desberdintasunaren balioa.

Mondragones tabernako Mirenek semeari lorea oparitu zion, omenaldia egin genion egunean: “Seme ona daukat, ez dio inori kalterik egingo bera hobetzeko”. Mirenentzat garrantzitsua ez da bere semea desberdina izatea, norberaren mesederako hirugarren bati kalterik ez egitea baizik. Meritua bere semeak balioak izateak du. Mirenek ez du txapel horia jantzi beharrik desberdina sentitzeko. Nahikoa du lehia kapitalistak dominatzen duen gizartean semeari begiratzea.

“Gu ez gara besteak bezalakoak” sarri samar entzun dut azkenaldian. Eta urduri jartzen nau. Esaldi hutsa iruditzen zait, esanahirik ez dauka-



EGOTZ LASA



‘Gu ez gara besteak bezalakoak’
sarri samar entzun dut
azkenaldian. Eta urduri jartzen
nau. Esaldi hutsa iruditzen zait,
esanahirik ez daukana
betetzen ez bada



na betetzen ez bada. Proposamen baten kontra “gu ez gara besteak bezalakoak” entzuten dudanean, horrela, hutsik, norengandik edo zerk bereizten gaituen zehaztu gabe, bizkarra eman eta korrika hasten naiz. Ziriren bat datorenaren zeinua da. Iruzurraren prelude argia.

Ez gaizki ulertu. Nik ere, esaterako, Gipuzkoan zementuzko proiektu erraldoi guztiak bertan behera uzteko eskatzen dut. Baina ez horrek desberdindu egingo gaituela uste dudalako, erraustegiak eta kanpoportuak testuinguru honetan zentzurik ez daukatelako baizik.

Ideologiak bereizten gaitu, eta nor-tasunak; izaera eta amets kolektiboek ere bai. Desberdintasun handienak balioen mailan egon litezke agian. Baina, hain desberdinak bagara, zertarako egin desberdintasunaz irizpide normatibo nagusia? Jarduna esaldi horren inguruan antolatzen dutenak ez ditut ulertzen.

“Ez gara besteak bezalakoak” ohar-tzeko eskatzen dizutenean, badaezpada galdetu zer nahi duten. Zure jardunak “desberdina” izan behar duela esaten dizutenean, agian zeharka esaten ari zaizkizu jarduna eraginkorra, ona, adostua, etorkizuneko... izatea ez dela “desberdina” izatea bezain inportantea. Eta hori hala baldin bada, oi lagun, une horretan egin fit, fit, fit. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



deitzen zieten zaleek: *Los azules*. Urrixe zuten lur zelaia, zanpatua, aldageletarantz etzana, euri aldietan hiru bat erreka-stoz hornitzen zena jokalarien desesperaziorako.

Dozena erdi aldi baino gehiagotan tokatu nintzen Irungo Real Union eta Hernanirekin haien aurkako partidatan. Gogoan dut Astiazaran aurrelaria bertan aritzen zeneko garaia –Amorrortu entrenatzaileak Astiazaran SDA jokalaria izan zuen– eta honek aurkako defentsak jotzea, baloia jotzea adina maite zuela. Zornotza Etxano ere ezagutzen nuen, ordurako ohar-tua nintzen lur bereko bi munduak bizi nituela, aipatu

Azulak

bikotea Donostiako Realean baino Real Sociedad de San Sebastianen ezagunagoa egin bazen ere. Lehengo astean SDA, Zornotza Etxanoko Sociedad Deportiva de Amorebieta Bigarren B mailara igo da, berrogei bat urte hirugarrenean igaro ondoren. Orain belarrezkoa dute zelaia, Urrixe Barria. Baina oinarritzko gauza batzuek lehen-gotan diraute, azulek *los azules* izaten jarraitzen dute eta Zornotza Etxanoko futbol elkarteak SDA du izena. Horregatik hain zuzen Goierriko Villafranca, Ordizia bilakarazi izanak ematen du poz, eta eredugar-riak ez duela beti eredu sortzen pena. Zelai bereko bi mundu. Futbolak ere iraultza behar du. ■

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Espainiako monarkiaren alde

Izenburua ikusita, harrika eta txistuka hasi baino lehen, utzidazu bi zehaztapen egiten: bat, printzipioz, erregetza sistemaren kontrakoa naiz, nonahi eta noiznahi, bi, Espainiarekiko nahi nukeena, enbaxada bidezko harreman diplomatiko adeitsua da.

Hala ere, inoiz ez nau ase gure artean askok Espainiako Errepublikari dion begikotasunak. Ez historikoari (II. Errepublika zekena eta itsua izan zen guretzat, eta sinpatia izateko arrazoi bakarra ondoren etorri zen izugarrikeria litzateke), ez III. Errepublika balizko bati ere.

Bere bostehun urteko historian, Espainia herrien harrapaketan eta zampaketan oinarritu da beti; hori ez da hain arraroa, beste horrenbeste egin dute inguruko estatuak ere; berezitasuna litzateke, jarrera hori ADNan sartua duela, nonbait, eta herrien ukazioa ez inperialismo baizik eskubide gisa ikusten duela; gure hobebeharrez beti.

Etnozentrismoa, zabarkeria, jauntxokeria, katolizismoa eta monarkia: horra gure auzoherriaren bost ezaugarri, ia beti loturik joan ohi direnak. Horietakoren bat galduz gero maitagarriagoa ote genuke? Batzuek uste dute monarkiarik gabe estatuaren izaera multikultural eta plurinazionala hobeki aitortuko



DANI BLANCO

lukeela. Nik duda egiten dut: ikus Frantzia, hain laikoa eta errepublikanoa, inor baino etnozidagoa.

Espainiak Errepublikako presidente bat aukeratuko balu, alderdi estatal batekoa litzateke beti, eta zentralista litzateke haren jokabidea, ezinbestean. Teorian bederen, errege edo erregina batek errespetu gehiagoz joka lezake erresuma osatzen duten herri eta hizkuntzekin (badakit zein den hemengo praktika, baina Belgikako koroa eskisitoa da alor horretan).

Sinestuta naiz Euskal Herria biziko bada independentzia behar dugula, baina bi konstatazio: inoiz ez digute halakorik onez onean emango, eta ez dago ahalik ez baldintzarik indarrez lortzeko (aspaldi zegoen garbi, baina orain denek aitortzen dute, eta hobe); politika-fikzioa egiten hasita, quasi-independentziatzeko egoera bat imajina genezake; eta halakoak, ez irudimeanean baizik errealitatean, monarkiaren kin gauzatu izan dira: begiratu inperio britainiarreko *Commonwealth*-ari.

Denok hastio ditugu borbondarrak, ados, baina nork ez luke sinatuko Zeelanda Berriaren edo Kanadaren estatusa izatea? Eta orain bai: libre duzue, nahi baduzue, harrika eta txistuka hastea. ■

Denok hastio ditugu

borbondarrak, ados, baina

nork ez luke sinatuko Zeelanda

Berriaren edo Kanadaren

estatusa izatea?

TXANDAN

Andoni Mujika



Aro berrian gizarteak galdera eta zalantza berriak dauzka. Zaharrak ere bai, beste era batera formulatuta dauden arren. Badirudi gurea bidegurutze aroa dela. Eta egoera berriek lehenetsun berriak sortzen dituzte norbanakoaren barruan. Galdegai zentralakoa, zentralena ez bada, hezkuntzarena da. Eragile guztiak ados daude hezkuntza oso inportantea dela aitortzeko orduan, baina indar horiek derrigorturik onartzen dute hori. Ez dut sumatzen helburu estrategiko honi daukan inportantzia ematen zaionik, ez eta gutxiago ere. Hezkuntzan apustu egitea kosta

Zeri
itxaroten?

egiten zaie. Beharbada da emaitzak berehala ematen ez dituzten estrategietan apustu egitea zaila egiten zaiela. Beharbada, interes orokorreko ikuspegia izateko gaitasunik ez dagoela. Etorkizunerako lehenetsunak jartzeko ezintasun moduko bat. Eta ez da, hainbeste, hezkuntza arloan aurrekontu txikiak bideratzen direlako, baizik eta, arlo horretan ez delako berritzen. Egun, dagoeneko, badago umea ezagutzeko nahikoa oinarri zientifiko. Oraintsu ezagutu dut Rafael Cristobalek egin duen ekarpen teoriko paregabea eta bere aplikazioa Arizmendi Ikastolan. Iraultza txiki bat da, behin-goz, pedagogia zaharra errotik aldatzeko. Adi. ■

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Haserrearen ordaina



itzerdien osinean, aztoramen eta eromen ororen bazter gaitzetan, gezur bihurtu nahi zuten egia; eta gezurra, egia. Gauzak osorik ezin esanezko hobi hartan, asaldura eta usteldura denen auzoan, atxilo hartu zuten egia; eta libre utzi gezurra. Lohia erantsi zioten egiari; eta gezurrari, distira atera.

Adarra jo ohi zieten gezurtiek herritarrei, gupidarik gabe. Astean behin, era eta kolore guztietako piztia hezigaitzek. Egunero, basabere perkainek eta bidutzi bihotz-mokorrek. Hartara, haserre bizian zegoen munduan gizaki zen guztia.

Zeruetan berdin. Eta, lurtarrak piztu eta demasia horren aurka altxa zitezen, San Antonio bagilekoak agindu zuen ezen hango goietan bazuela pernil bat, iparraldeetako haize hotzek ondua eta mendizerra urdin asagoetan ustiatutako kresalak gazitua, harean eder-ederra, ondo gordea eta zaindua, garbi hitz egin eta injustiziak borrokatzen zituenarentzat; hark bere lagunekin has eta goza zezan.

ZIRI OKERRARI, GERRA. Hitz erdien erreinuan bada, haserre tarteko, gezurtien aurka hasi dira herritarrak. Gezurontzi horien denen aurrean, plazetan bildu dira ernegatutakoak. Kanpinak hartuta, udaletxe aurrean, teatro handiaren parean, eta elizaren babespean ezarri dituzte sumindutakoek egote-lekuak.

Batzarrak egin dituzte. Komisioak eratu. Debekuak saihestu. Jario faltsuak epaitu. Amarru handiak, galantak, biribilak, hutsak... den-denak eztabaidatu eta surtara kondenatu dituzte.

Gezurra dariola dabilen jendea kritikatu dute. Jukutria gaiztoko lagunak biluztu dituzte. Iruzur-harrobiak hobiratu dituzte. Politikari profesionalak larrutu dituzte. Sasipolitikariak lumatu. Lepo-ezka-



DANI BLANCO

tak erauzi dizkiete boteretsuen beretterrei eta akolitoei.

Eta egia berria definitzen ahalegindu dira. Arrazoiaren arabera ezin uka daitezkeen esaldiak entzun dira han eta hemen. Egia handiak, garbiak, hutsak eta biribilak ibili dira denen ahotan.

Maiatz ilunaren ostean, bagil argia etorri da; eta denek amestu dute ogi ugaria.



Direnak eta ez direnak ezkondu dira.

Apartatu, bazirenak. Itxuraldatu, gorriak. Mozorrotu, urdinak.

Biluztu, berdeak. Gorrek musika jo, itsuek pintatu. Hura bai udaberri

koloretsua, denen artean antolatu dutena



irudia:

Antton Olariaga

ZURIKERIARI, GUDU. Hitz erdien erreinuan, langabeziarekin amaitzea agindu dute batzuek. Denei askatasuna ematea beste batzuek. Justuki lan egitea inork.

Direnak eta ez direnak ezkondu dira. Apartatu, bazirenak. Itxuraldatu, gorriak. Mozorrotu, urdinak. Biluztu, berdeak. Gorrek musika jo, itsuek pintatu. Hura bai udaberri koloretsua, denen artean antolatu dutena.

Hautestontziak hartu dituzte herritar batzuek gezurraren salaketak egiteko, egiari zor zaiona azaleratzeko, justiziaren alde borroka egiteko, langabeziarekin amaitzeko. Joan dira, joan, botoa ematera herritarrak. Paper ezin zuriagoetan bildu dituzte beren ametsak. Laranja kolore bizikoekin egin dituzte begitazioentzako kutxa gotorrak. Berdeekin, irudipenezko altxorak.

Zenbatu dira bozak ondoren. Azaoetan lotu dira batzuen ametsak. Begitazio-bala ederrak jarri dituzte mahaietan. Eta, ondorioak aldarrikatu dira. Telebistak esan ditu. Irratiak errepikatu. Egunkariak zutabetan erakutsi... Ongi mozkortu dira irabazleak, eta gaizki horditu galtzaileak.

Elkarri begiratu diete boto-emaileek. Elkarri, plazetan bildutakoek. Elkarri, haserretutako batzuek eta besteek. Gora ere, inork.

Megafonoa hartu du batek, eta oihukatu die ortzietako hodeiei:

– Bagileko hori... eta pernila zer?

– Hemen da, arasan gordeta; baina giltza ezkutatu didate. ■

BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Muxurik muxu



XDZ

I

Bizitzan eman eta jasotzen
diren muxu ta laztanak,
kontaezinak izan daitezke;
aldi berean bakanak.
Nahiz eta sarri bat gogoratu
ta ahaztu beste danak,
ohartzen gara indartsuenak
direla aita ta amak
eskatu gabe emanak.

II

Gerora eskolan norbait minduta
haserrearen haserrez,
maisuak muxu emanaraziz
konpontzen gintuen errez.
Baina lotura afektiboak
norberarenak direnez,
inork esanda kolpe handirik
eman behar ez den legez,
muxu txikirik ere ez.

III

Loti Ederra ta Edurne Zuri
bi printzesa peto-peto,
zaldunen baten muxuaren zain
desioa noiz beteko...
Umetan hori saldu ziguten
baina orain gaude hobeto,
emakumeok ez dugu behar
gizonik dagoeneko
lozorrotik esnatzeko.

IV

Nahiz filmeetan hala ikusi
ezin da mitoez fido,
lehen muxuan emozioa
bihurtzen baita bertigo.
Baina orduko kili-kiliak
sabelean maitekiro,
desio dugun norbaitengana
hurbiltzen garen aldiro
senti daitezke berriro.

V

Ikasi arren leialtasuna
dela biko baten ardatz,
nori ez zaio tentaldiari
eustea egin inoiz gatz?
Muxu batekin hurbilduz ezpain
debekatu haietarantz,
unean horren gozoa zena
bihurtzen dela ez ahantz,
biharamunean garratz.

VI

Eman gabeko muxuak baino
txarragorik ez da usu,
aitona, ama, betiko lagun,
maitale edo lehengusu...
Nahiz bere ondora hurbiltzerako
mundua ikusi lausu,
bizitza osoan zalantzarekin
geratu nahi ez baduzu,
emaiozu behingoz muxu!

DOINUA: Saltarina da txepetxa eta.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaisera

Wagner kasua

Musikaren zaharkitze behartua

Zertarako idatzi Richard Wagnerri buruz, ez badago urteurrenik begibistan? Zertarako, honezkero asko, gehiegi idatzi bada hari buruz? Zertarako, nazien inspiratzaile izatea leporatu izan badiote? Zertarako, ez bada Leipzigueko polizia-funtzionario baten eta okin baten alabaren semea zen hark oraindik garra pizten duelako? 2010eko argitalpen hauek dira horren adierazgarri, besteak beste: *Bost lezio Wagner “kasuaz”* (Alain Badiou), *Wagner bariazioak* (Slavoj Zizek) eta euskaraz berriki argitaratutako Nietzscheren *Wagner afera*, *Nietzsche Wagnerren kontra* (Unai Casas Antiak itzulua). Ez dugu aitzakia gehiagorik behar, Wagner berriz bisitatzeko.

HEDO I ETXARTE

WIKIPEDIA



WAGNERREKIKO GORROTOA piztu ohi duena ez da bere musika izaten. Poeta, 1883an hil zela jakinda ere, Wagnerren nazionalsozialismoarekiko loturarengatik egiten dio askok hil osteko epaiketa. Horren adibide kostunbrista da 2010ean Patrick McGradyk BBC 4rako egin zuen *Stephen Fry On Wagner* dokumentala. Fryk Auschwitz-en egon zen Anita Lasker-Wallfish judutar jatorriko biolontxelo-jotzaileari Bayreutheko jaialdira joateko baimena eskatzen dio, eta zera galde-tzen: “Nire judutartasunari traizio egiten al diot Wagner entzunaz?”. Lasker-Wallfishek irribarre egiten du, kontzentrazio esparruan Wagner ez zutela jotzen esaten dio: “Ez nioke inori Wagner entzutea debekatuko. Gainera dramarik gabeko musika balitz, ez dut uste haren kontrako argudiorik egongo litzatekeenik”.

Theodor Adorno tematu zen bereziki Wagnerren lanaren alde protofaxista azaltzen, 1937-38an idatzi eta 1952an argitaratu zuen *Wagnerren bila-n* (*Versuch über Wagner*). Zizekek *Zergatik merezi du Wagner*

Wagnerrek 1849an Beethovenen 9. sinfoniaren entsegu nagusia zuzentzen zuela, polizia atzetik zuen Bakunin sartu eta “munduaren amaieran musika guztia desagertuko balitz, sinfonia hura salbatzeko bizia eman behar zela” esan zion.

salbatzea? (*Why is Wagner Worth Saving?*, 2005) hitzaurrean sintetizatzen duenez, Adornorentzat Wagnerren opera traditutako iraultzaren monumentua da, paradoxikoki uztartua dago modernitate kapitalistaren ukazio kontserbadorea eta salgaiekiko fetixismoaren elementu formalei aurre egitea. Ironikoki, Zizekek aipatzen du 50eko eta 60ko hamarkadetan Adornok gradualki Wagnerren gainerako iritzi baikorra goa izan zuela eta, beraz, Adornoren oinordetzari fidel izatea eta Wagner erreabilitatzea eginkizun bera litzatekeela. Beste hipotesi baten arabera, bere buruaren aurkako kritika egiten ari zen Frankfurteko Eskolakoa leitmotiv zien herra azaleratzen zuenean, maiz sortzen zituen lexikalizatutako formula horien baliokide musikalak zirelako.

Edonola, protofaxisismoaren bandera haizatzen dutenei zenbait datu gogoratzea ez legoke soberan: 1922an Mussolini boterera eraman zuen PNF 1921ean sortu zen; eta 1933an Hitler hautagai izan zen NSDAP 1920an. Beraz, kasurik onenean, autorea hil eta hiru hamarkadara sortu ziren egituren inspiratzaile izatea egozten zaio poetari. Zizekek 2010eko Frankfurteko Liburu Azokan esandakoaren arabera, estatistikei jarraiki, naziak Verdi eta Pucciniren zaleak ziren bereziki: 1933a baino hamar urte lehenago eta hamar urte ondoren antzezte kopurua neurtuta Wagner da galtzaile nagusia. Sintoma ona da Leni Riefenstahlek *Triumph des Willens* nazien propagandarako egindako dokumentalaren doinuak entzutea, jabetzeko drama musikalak ez duela lekuri eta banda militar, fanfarre eta txarangak direla nagusi. Nazien estetikarekin eta ideologia-rekin Carl Orffen kantata eszenikoek egiten zuten bat.

Reductio ad Hitlerum falaziak muga traketsera gerturatzen du eztabaida, esaterako, ezagun denean musikariak mespretxu sutsua jaso zuela erregimenaren filosofo zen Heideggerren lumapetik pasa zenetan. Badiouk gogorarazten digun bezala, Nietzschek Wagnerrekin izan zuen kereila gorabehera “biak izan ziren erregimenaren ikur!”. Halere, Wagner antisemita dela argitu nahi dutenak ebidentziaren bila ari dira, 1850ean jada *Judutartasuna musikan* lanean garbi utzi baitzuen autoreak bere iritzia. Pertsonaien rolak aztertuta *Operaren bigarren heriotza* (*La Seconde morte de l'opéra*, 2006) Zizekek argi azaltzen du musikagileak sarri erraria den pertsonaia-rekin —judutarra *par exce-*

llence— duen lotura pertsonala: Tannhäuser bera, Holandarra edo Wotan (zeinak Tetralogiako hirugarren atalean Bidaiaria izena duen).

...et quand-même

Mitoak hartu zituen lan tresnatzat Wagnerrek. Greziakoak Eskandinaviako paganoe-kin nahastu zituen *Nibelungoen eraztunaren* tetralogia eraikitzeke. Adornoren esanetan, drama musikaletako pertsonaiek adierazita-koan argi dago zenbait pertsonaia (Alberich, Hagen eta Mime) judutarraren estereotipoa direla. Wagner eskalea zela arrakasta erabate-koa zuten Felix Mendelssohn eta Giacomo Meyerbeerren musika-moldearen aurka egite-ko erabili zuten judutarraren paga-burua.

Halere, duela hamarkada batzuetatik gailendu den ideia da, Adornok egindako desko-detze historizistak ez direla diruditen bezain garbiak. Pertsonaia, lehen begiradan baino konplikatuagoak lirateke. Gainera, orduko judutartasunareki-ko aurreiritziak ez leudeke hain argi islatuta. Are kontrakoa, Tetralogia, berez, jainkoek —eta bereziki gorenaren Wotanek—

jokatu behar duten moduan ez jokatzearen kritika zorrotza litzateke. Maitasunaren plazer oro izan dituen Wotanek bat-batean bote-rea ere nahi du. Bestaldean, ezer ez duen gizaki zatarrak maitasunaren aldeko apustua egiten du. Baina jada diruak agintzen duen munduan Rhineko neskatek ez diote jaramonik egiten. Hortaz jabetuta, Rhineko urrea lapurtzea beste irtenbiderik ez du: urrea du maitasunerako bidea. Nahiko argia da, hortaz, hasierako bekatua ez dela —tesi arrazista eta antisemitismo klasikoak jorratu bezala— elementu exogenoren batek ekarritako arazo: jainkoak dira ondo jokatzen ez dakite-nak. Izatekotan, atzeritarren bekatua eskala txikiko ihardespena litzateke. Agerian suertatzen den oposizioa (jainko eta nibelungoena) Wotanen barneko kontraesanaren ondorioa besterik ez da.

Maitasuna edo boterea

Tetralogiaren aurretik ere usu taularatu zuen maitasunaren gaia. Ez da hau bere maitasun txutxumutxuak jorratzeko gunea, baina oroi dezagun gizon txiki buru handia izanda ere hasieratik izan zuela arrakasta emakumeekin autoreak. Heriotzarekin konbinatu zuen maitasunaren gaia *Tristan eta Isoldan*. *Tannhäuser* operan bi maitatzeko era jarri zituen aurrez aurre: antzinaroko maitasun paganoa

Garaiko opera italiar eta frantsesaren dibertsio hutsala eta abeslarien zentraltasun sentsazionalista hautsi nahi zuten drama wagneriarrek, orkestra ezkutatua ere dramaren menpe jarri zuten

—haragizkoa—, eta Erdi Aroko maitasun kristaua —erlijiosoa—. Tetralogian aurrez aurre jarritako maitasuna eta botereaz gainera bestelako gaiak jorratzen dira: amarekiko maitasun intzestuosoak, asexualtasuna, homosexualtasuna (Siegfriedek itsuki adoratzeko du gerlariz jantzitako Brünnhilde, eta emakumea dela jakitean harritzen da), gupidarik gabeko emakume lider erradikalak (Fricka), damua, berrerospena, adopziozko aitatasuna (Mimek modu interesatua Siegfriedekiko duena).

Freud edo Lacanen lagunek material amaiezina aurki dezakete, baina ez haiek bakarrik. Hala erakutsi zuen George Bernard Shaw marxiarrak Tetralogia “dozena erdi pertsonaien arteko eratzun bat lortzeko duten borroka dela uste dutenen” iritzia aldatzeko 1898an idatzi zuen *The Perfect Wagnerite: A Commentary on Niblung's Ring* testua. Shawrentzat “mundua inarrostean duen horrorearen aurreko ataka” litzateke kontatzen dena. Laurogeiko hamarkadatik Boulezek egindako antzezpenetan gehiago azpimarratzen da kapitalismo industrialak langilerian daukan esklabotza molde berria. Irudi luke Wagnerrek Engelsen *Langile klasearen baldintzak Ingalaterran* irakurrita lortu zuela inspirazioa.

Trantsizioko mezua

Badiouk “Wagner Adornorekin zuen harremanaren baitan aztertzea” proposatzen du. Wagnerrek forma sortzen duelako “forma-

Fritz Lange 1924an egin zuen *Nibelungoak* filmeko sekuentzia bat.

ren eraldaketa gisa”, eta beste edonork bezala ezin baitu “formarik gabeko musika” erai-ki. Bere lan bakoitzak “kolore ezberdina dauka, lehenengo konpasetatik identifikagarria”.

Wagnerren ezaugarri formalak “nahiko modu anbiguoan daude ezaugarrituta”. Operaren generoa iraultzeko, XVIII. mendeko Christoph Willibald von Glucken lanen jarraitzailea izan zen: haren arabera musika olerkigintzaren zerbitzura zegoen. Eta hori izan zen Wagnerren helburuetarik bat, tragedia greziarrerako nolabaiteko itzulera. Drama musikala deitu zien lanei; *Etorkizuneko artelana* (1849) eta *Opera eta drama* (1850) saiakeretan azaldu zituen bere teoriak. Hasieratik izan zituen bere musikak *Grundt-bemen* edo gai-nagusiak. Prozesu artistiko oro kontrolatzeko beharra *Gesamtkunstwerk* (erabateko artelana) ideia-aren pean

FINDTARGET.COM



IBERNALO

landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegiak...






01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.ibernalorural.com

garatu zuen Tetralogiatik aurrera. Elementu narratibo eta musikalez gainera, kontu piktoriko eta eszenikoez ere arduratu zen. Garai-ko opera italiar eta frantsesaren dibertsio hutsala eta abeslarien protagonismo sentsazionalista hautsi nahi zuten drama wagneriarrek, orkestra ezkutatu ere dramaren menpe jarri zuen.

Nietzscherentzat Wagnerren musikan trantsizioa besterik ez bada ere, Pierre Boulez zuzendariak azpimarratzen du wagneriar gaien potentzialtasuna eraldaketan datzala, metamorfosi subjektiboan.

Kereiletako akusazio partikularrak eta defentsa abokatuak

Badiouk dioenez Nietzscheren irain eta mespretxuen atzean bere bizitzako pasio sutsuena dago. Wagnerri egiten zion aurpegiatze nabarmenena politika handiaren alde baino arte handiaren alde egitea izan zen. Nietzschek Wagner *Parsifal* operaren karietara epaitu nahi izan zuen, zuzenbidearen lexikoa erabili zuen due-luaren eszenaratzeko. Baina analisi molde falaz eta jarraikortasunik gabea burutzen du, ez dio heltzen eduki zehatz bakarrari, emozio narratiboaz gainera ez da exegesirik. Irainak nagusi dira: neurotikoa, artista moderno *par excellence*, arte gaixoaren egilea, musika txar-aren egilea, antzezlea, tiranoa, musikaria ote zen ere galdegiten du. Esaldi borobil honen adibidea baina hoberik ez dago: “Richard Wagner, itxuraz garaileetan garaile, berez ustel bilakatua, *déca-dent* desesperatua, hondoratu egin zen supituki, babesgabe eta suntsiturik, kristau gurutzearen aurrean ahuspeztu zen”. Salatu zuen kristautasunari eta masen gurariei amore ematen ziela –Victor Hugorekin parekatuz–. Baina *Parsifal*en kristautasunarekiko kritika erradikala dago: biziraupenaz soilik arduratzen den kristautasun zaharkitua zentzugabea dela azaltzen da. Kristautasunaren kritika gauzatu baino, berrirakurpen erradikala egitea hautatzen du, Badiouren begietan *Parsifal* “kristautasuna deseraikitze saiakera da funtsean”. Wagnerren bekata –Erroma, Grezia edo Eskandinaviako mitoei gertatu ez bezala– oraindik “bizirik” ziren narrazioak interpretatzen hasteara izan zen.

Bakuninen burkidea eta Ludwig II.a mezenas

Wagner laidoztatu nahi izan dutenek hautatu-tako beste fronte bat botere ekonomikoekin

izan zuen lotura izan da. Beste inon egin beharko da irakurketa sakonagoa, edozein kasutan eta biografien arabera, irudipena da Wagnerrek bere lanak egiten jarraitu zuela, bere bizitzaren zati gehienez lan horiek eszenaratzen ez baziren ere. Autoreak bere obrarekiko zuen engaiamenduak gosearen mugara eraman zuenean ere ez zuen bere lanen norabidea aldatu.

Hamazazpi urte zituela hasi zen Wagner iritzi libertarioak izaten, “tiranoen uztarrak suntsituko” zuela esaten omen zuen. Bere bizitzako pasarte gogoangarrienetako bat 1849ko Dresdeko Altxamendukoa izan zen. Wagnerrek, bere kide Bakunin eta Röckelekin batera, sutsuki hartu zuen parte altxamendu iraultzailean. Sei egunen buruan iraultza garaitua izan zen: 231 hildako, 1.200 espetxeratu eta Wagner deserriratu

izan zen herrialde aleman gehienetatik, bere bi kideekin batera anarkista arriskutsuak izatea egozten zitzaien. Vuillermosen arabera Liszt lagunak negoziatu zuen poliziekin eta pasaporte faltsuarekin zeharkatu zuen Frantziako muga.

Gertakarien ostean Parisen izan zen ordainezinak zitzaizkion alokairuengatik gero eta etxe merkeagoetara aldatzen. Zorpetzez zorpetze, lagunaren eskupekoei esker biziraun zuen. Hemen eta han zuzendari lanetan ari bazen ere, 51


urte bete arte ez zuen finantza egonkortasunik izan. Wagnerren ekonomia-aren salbatzaile tronura iritsi berri zen Bavariako Ludwig II.a izan zen. Hemezortzi urte zituen monarka gazteak eta musikaria diruz laguntzeaz gainera, bere ametsetako Neuschwanstein gaztelua eraikitzean haren aholkuak jaso zituen. Lucien Rebatetek harriduraz jasotzen du bere *Musikaren historian* (*Une histoire de la musique, des origines à nos jours*, 1969) Wagner “kriterio erabat burgesekin epaitu izana”. Difamazio kanpainak “anekdotetan oinarritutako liburuetan” jaioak direla adierazten du historia-lariak, “ehun urtetik gorako esamesetan eta asmo txarreko topikoetan” oinarritzen omen da dena edo Adornoren “saiakera digerigaitzean”. Beste narrazteko molde batekin baina Rebatetek bat egiten du Zizek eta bestek Adornori buruz esaten dutenarekin: “Wagnerren izaera burgesa sozio-filosofikoki demostratzeko saiakeran bere pedanteria frogatzen du; emaitza gisagabea eta inteligentzia-eza da”. ■

**Protofaxismoaren bandera
haizatzen dutenei zenbait datu
gogoratzea ez legoke soberan:
1922an Mussolini boterera eraman
zuen PNF 1921ean sortu zen; eta
1933an Hitler hautagai izan zen
NSDAP 1920an. Autorea hil eta hiru
hamarkadara sortu ziren egituren
inspiratzaile izatea egozten zaio
poetari**

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Eginbeharrak

Emazteak senarrari:

- Zer egin behar duzu gaur?
- Ezer ez.
- Atzo ere gauza bera esan zenidan!
- Bai, baina ez nuen bukatu!



Asmo desberdinak


Senarrak logelatik, oihuka:

- Miren! Kaltzontzilorik gabe nago!

Eta emazteak sukaldetik:

- Lasai! Garbituko dizkizut batzuk biharko!

Soluzioa




Liburuak

KRITIKA

Ipuinak.
Gabriel Aresti (X. Monasterioren edizioa).
Ikeder, 2007. 69 orrialde. 11 euro.

Hemeroteka

Aritz Galarraga



Ta modernoak “basque speaking”

MARTIN UGALDE izan omen zen ipuina literatur genero moderno gisa landu zuen lehen euskal idazlea. 1961era goaz, orduantxe argitaratu baitzuen Ugaldek, Venezuelan, bere euskarazko lehen ipuin bilduma: *Iltzalleak* (1985eko euskara batuko edizioaz geroztik, *Hiltzailleak*). 36ko gerran eta ondorengo erresistentzian giroturiko ipuinak dira euskarazko lehen ipuin bilduma modernoa izendatu dena osatzen dutenak. Ordura arte ipuina kontakizun erraz, folkloriko eta irrigarria izaten zen, eta Ugalderenek iskin egin zioten kostunbrismoaren eragin zuzenari. Literarioki balioa aitortzen diete Xabier Mendiguren eta Koldo Izagirrek. Ibon Sarasolak, berezko balio literarioa baino, gerraondoko literaturaren jarraipen, literaturaren biziraupenaren balioa eman zion, oro har, erbesteko literaturari. Literarioa eta jarraipenarena, biak iruditu zaizkit bateragarri Ugalderenak irakurri ondorenean.

Baina, lehen euskal ipuin modernoek ari ginela, hara non topo egiten dudun liburuxka batekin, apenas 69 orrialde, *Ipuinak* epigrafea azalean, Gabriel Aresti delako batek sinatutako sei ipuin. Eta gogoratzen dut Susa argitaletxeak egin zuen lan eskerga hartan, Gabriel Arestiren lan konpletoetan, badagoela *Narratiba* izeneko ale bat, eta hemen ere bildu zirela sei ipuinok (gehi narrazio labur batzuk, gehi nobela bat). Eta 86ra arte liburuan jaso ez baziren ere, gogoratzen dut *Egan* aldizkarian argitaratu zirela seiak, lehena 1957an, azkena 1962an. Eta kontua da ipuin horiek ere erabat direla moderno, ez inolaz ere erraz, folkloriko eta irrigarri, nahiz eta barrerako tartea ere uzten duten (*Olerkaria* autoironikoak, esaterako). Hiria agertzen da, Bilbo, arazo sozialak, alde ekonomikoak; gaiak dira garaikoak, dirua, lana, giza kondizioa, sexualitatea, idazletza; euskara bera, batua sortu aurreko batua dugu.

Ipuinak honekin kontuz, baina: Xabier Monasteriok eskua sartu du, beharrik gabe, asmo onez, pentsatzen dut, ipuinak moldatuta eta erraztuta eskaintzen dira, baina egungo irakurleak arazorik ez du jatorrizkoekin, zertarako ezer ukitzen ibili beraz. Hobe da, hortaz, lehen aipatu dugun Susako liburura jotzea edo, nahiago bada, *Egan* aldizkarira bertara, edizio digital txukunean aurkitzen da armiarma.com gunean.

Ugalderenak edo Arestirenak, hau ez da noski konpetizioa, lehena nor izan zen ez da sobera garrantzitsua. Bai, ordea, jakitea garai bertsuan kezka bertsuei erantzun bertsuak ematen saiatu zela idazle bat baino gehiago, ipuina genero moderno eta, ondorioz, garaikide kontsideratzeraino. ■

‘Gose jokoak’ trilogiaren amaiera

Suzanne Collinsen *Gose jokoak* trilogiak arrakasta handia izan zuen AEBetan lehen liburua 2008an publikatu zenetik. Hamaika hizkuntzatara itzuli dute geroztik eta gurean Alberdania eta Erein arduratu dira euskaraz argitaratzeaz. *Gose jokoak* eta *Dena sutan* lehen bi liburuen ondotik, hemen da trilogia itxiko duen liburua, *Eskino-*

noso isekaria. Publiko gazte-helduarentzat idatzitako distopia honen protagonistak, Katniss, tiraniaren kontrako matxinada bururaino eramanez ala ez erabaki

beharko du azken liburu honetan. Horretarako, mesfidantzak eta amorruak alde batera uzten ikasi beharko du ordea, ezin bestean. ■



Eskinoso isekaria.
Suzanne Collins.
Alberdania-Erein.
415 orrialde.
20 euro.

‘Multibidaiariak’ saileko lehen liburua

Fernando Morillo idazle azpeitiarrak *Multibidaiariak* izeneko istorio sortari ekin dio. Denboraren eta espazioaren hesiak gaindituz bidaia fantastikoak egingo dituzte protagonistek, gizateriaren historiaren aldi eta leku ugarietara. Eta noski, bidaia arruntetan gertatzen den moduan, espazio-denborak zeharkatuz egindako bidaia hauetan ere denak ez dira lagunak izango. Saileko lehen liburuak Greziara eramango gaitu. Frank Millerren 300 nobela grafikoaren estetikan oinarrituta –ez da alferrik aipatzen Terno-piletako bataila– Morilloren testuak eta Iñaki G. Holgadoen ilustrazioek abenturaz beteriko narrazioa osatu dute. Hurrengo geltokia, Japonia. ■



Lehoien dantza.
Fernando Morillo.
Elkar.
188 orrialde.
16,25 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Gure negu hotzak.
Izate.
Autoekoizpena.
Iraupena: 48'44".
10 euro.

Sustraienganako sentsibilitatearen eta irmotasunaren arteko oreka

DONIBANE-ZIBURUKO laukoteak hiru urte luze egin ditu estreinako lana kale-ratu zuenetik eta oraingoan jauzi nabarmena egin du bigarren lanarekin. Iparraldeko eta Frantziako beste talde askok bezala post-hardcorearen iluntasun eta irmotasuna oso barneratuta daukate eta gogora ekarri dizkidate Dischord zein Amphetamine Reptile Recordseko hainbat talde, lortutako oinarri erritmiko aberats eta giro bereziengatik. Horrez gain, bitxia da tarte

akustiko eta folkyak, lurrekoak, askoz pausatuagoak, lantzeko erakusten duten abilezia eta sentsibilitatea. Are gehiago, zenbait kasutan bi tendentzia horiek kanta berean uztartzen dituzte. Nabarmenezkoa da, baita ere, Claire abeslariak erregistro oso desberdinak lantzeko duen erraztasuna. Autoekoizpenean diharduen Iparraldeko talde oso interesgarria bederen.

www.izate.net

Izate

«Musika tradizionalak segitzen du bizirik, gizartearen modernizatzearekin ongi moldatuz»

“Atzo galdutakoa bihar irabaziko dugu, baina lehenik onartu egin behar da galtzea”. Hain luzea izan da “negua”?

Bai. Atzo galdutakoa bihar irabaziko dugu, baina lehenik onartu egin behar da galtzea; momentu zailak geroko pozarekin lotuak dira. *Gure negu hotzak* kanta Euskal Herriaren egoeraren metafora da. Negu hotzean luzaz murgildurik egon da, baina udaberria negua gainditzen ari da bere fruituekin. Disko hau egiteak luze eman digu eta egiazatu ahal izan dugu sufrimendu eta pozaren arteko lotura.

Bizitzaren begiak amatasun/aitatasunari buruzko kanta ederra da...

Bai, taldeko kideen familiak handitu dira, eta omenalditxo bat egin nahi genien. Aita bilakatzeko bizitzari ematen diozun zentzua sakonki aldatzen du: zure interesak defendi-



tzeko bizi baino, zure haurrenak babesteko.

“Baina ez da betiko” diozue. Adin muga dauka rock-and-rollak?

Rock-and-rolla liberekin momentu oso intentso baina motza da. Hala ere, ez du adinik. Alderantziz, musika horren indarrak ongi entretenitzen ditu gorputzak eta buruak. Horren frogara dira berriketan ikusi ditugun AC-DC, No Means No, edo Niko Etxart.

Beti dago “beste bat” (zoritxarrez)?

Bai, denen baitan beti dago beste bat. Alde ilun bat daukagu denek. Bakoitzak bere buruari hori aitortu behar dio bakea lortzeko.

Oso deigarria iruditzen zait Iparraldeko taldeek, sonortate gogorak lantzeko trebezia izateaz gain, ildo akustiko eta folkyenarekin konektatzeko duzuen erraztasuna...

Bai, oso naturalki barnerrazten ditugu eragin horiek; ez dugu baitezpada rock-and-rolla entzuten soilik. Euskal Herrian aktibo dago musika eszena, bai gaztetxeetan, aretoetan eta baita herriko plazetan eta karriketan ere. Musika tradizionalak (kantaldi, euskal kanta, pastoral) segitzen du bizirik, gizartearen modernizatzearekin ongi moldatuz. Digestio lana oso luzea da, baina guk segituko dugu ildo akustikoa lantzen eta sonortate pisuagoekin gurutzatzen. ■

Ezpalak

JON TORNER

Juan Luis Goenagaren erakusketa Donostian

DONOSTIAKO Ekain galerian Juan Luis Goenaga (Donostia, 1950) margolariaren 30 obra izango dira ikusgai bihurtik uztailaren 23ra arte. Azken hilabeteetan margotutako koadroak bildu dituzte *Paisaiak* izeneko erakusketan.

Getariako Balentziaga museoa inauguratu dute

HILAREN 7an inauguratu zuten Getariako (Gipuzkoa) Balentziaga museoa, eta ostiralean irekiko dizkio publikoari ateak. Cristobal Balentziaga jostun eta moda diseinatzailearen (Getaria, 1895 - Xabia, Alacant, 1972) bizitza eta obra jasoko dute Aldamar parkeko bi eraikinek. Ikusgai dauden piezen artean, 70 jantzi eta hogeit bat osagarri daude, Balentziaga Fundazioak dituen 1.200 piezen artean aukeratuak. Museoak 30 milioi euroko inbertsioa izan du.

● **Aitor Mazo aktoreak Bizkaie! webgunean:** «Hemen ez dago lan handirik guretzako. Ez dago antzerkirik, ez zinemarik, ez produkzinorik, eta Euskal Telebistan... Aktoreek txiste antzera erabiltzen dogu Euskal Telebistaren leloa: *Etxean zaude*. Bai, etxean gagoz. Danok itxaroten, lana noiz helduko zain. (...) Lan egiten dabenek be, sarritan ez dabe kobretan, udalek ez dabelako ordaintzen. (...). Artis-teak ez dauka ezelango babesik. Gure baldintzak patetikoak dira. Ez dozu topauko 35 urte kotizau daben artistarik (...) Kirolagaz konparaketea egiten dodanean, sutan ipinten naz».

Maidier Lopez, Agustin Ibarrola eta Santi Eraso artistak saritu ditu aurtien Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Gure Artea sariekin. Ibarrolari ibilbide artistikoa aitortzeko saria eman diote, Lopezi sorkuntza lana aitortzeko saria eta Erasori arte bisuala aitortzeko saria. Azken hori lehen aldiz eman dute, Arte bisualen talde eragilearen gomendioei kasu eginez.

Asier Mendizabal

artista ordiziarraren lau obra jaso ditu Veneziako (Italia) Arte Biurtekoak (www.labiennale.org), ILLUMInazioni erakusketa nagusian. *Soft Focus*, *Hard Edge*, (*Benta-Haundi*) eta *Signals, Calls and Marches* obrak eraman ditu ordiziarrrak. Azaroaren 27an itxiko ditu ateak Biurtekoak. Argazkian Mendizabal, Aizpea Goenaga Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria eta Blanca Urgell Jaurlaritzako Kultura sailburua, *Hard Edge* piezaren alboan.



Alain Urrutia bilbotarrak irabazi du Bizkaiko Foru Aldundiaren Ertibil saria, *Katamalo* izeneko koadroarekin. Bigarren saria Miriam Isasik eta Unai Requejok eskuratu dute, *Le dejaron así* bideoarekin; eta Manu Urangak hirugarrena, *Paisaia-hiria* diapositiba bildumarekin. Hiru obra horiek, sariketan parte hartu duten beste zenbait lanekin batera, Bilboko Rekalde aretoan izango dira ikusgai uztailaren 3ra arte.



txondorra
erreategia

☎ 943 794 276
Bizkaia etorbidea, 9 / 9
Arrasate (Gipuzkoa)
txondorra-sagardotegi.com

Abarrak

JON TORNER

Siziliako 'fumetto' beltza

Brancaccio. (Norma, 2008)

Gidoia: Giovanni di Gregorio / Marrazkiak: Claudio Stassi

96 orrialde, zuri-beltzean.

PALERMO ekialdean dago Brancaccio auzoa, tren geltokiaren atzealdean. Siziliako beste hainbat lekuren antzekoa da, kale ilun eta eraikin zaharkituekin. Postal ponpoxo bila ez dabilen kanpotarraren begietara kale-bazterren itxura narrasak xarma berezia izan dezake, baina esku artean dugun *fumetto*ak (zein izen ederra komikia izendatzeko!) erakusten digu argazki *zikin* horren atzean errealitate are beltzagoa dagoela. Urterik bortitzenak pasa diren arren, *La Cosa Nostra* ezkutuan kontrolatzen du oraindik Brancaccio, hango negozioak eta hango herritarren joan-etorria, Hollywood-ek zabaldu duen mafiaren irudi sarri epiko horretatik at.

Bi autore palermotarrek, Giovanni di Gregorio gidoilariak eta Claudio Stassi ilustratzaileak, apaingarri gehiegi erabili gabe lortu dute presio hori islatzea; mafiaren presentzia itogarria da Brancaccioko eguneroko bizitzan. Isilpekoa da, ez dago tirorik, ez odolik, baina bertakoek lepondoan sumatzen dute haren hatsa.

Brancaccio nobela grafikoa eta salaketa-kazetaritza uztartzea xede duen *Graphic journal* bildumaren baitan plazaratu du Normak. Bildumako liburuek kazetarien eta gaiarekin harremana duten lagunen artikulua jasotzen dituzte. *Brancaccio*-ren gaztelaniazko edizioan parte hartu dutenetakoa da Maria Paz Lopez, *La Vanguardia*ko Erromako korrespontsala. Aitzinsola-sean dio, agian, Sizilia ederrean bizi ez den pertsona batek ez dituela komikiko ñabardura guztiak harrapatuko. Litekeena da hala gertatzea. Dena den, gabezia hori testu periodistikoek betetzen dute: Rita Borsellinoren (mafiak hildako Paolo magistratuaren arreba), Saverio Lodato kazetari italiarraren, *pizzoaren* –mafiak exijitzen duen zergaren– kontrako Adiopizzo mugimenduko kideen eta Di Gregorio-Stassi bikotearen hausnarketa eta azalpenek komikiak kontatzen duen istorioa hobe ulertzen lagunduko digute. ■



Atxaspi Hotela



ametsetan bezala.

Bittiria 24

Lesaka (Nafarroa)

T 948 637 536

hotela@atxaspi.com

www.atxaspi.com

Osasuna

JABIER AGIRRE

Arriskurik gabeko uda urdailarentzat

UDA PARTEAN bero egiten du normalean, eta horregatik janari hotzak aukatzen ditugu. Fruta, izozki eta likidoen kontsumoa ere gehitu egiten da, neguko hilabeteekin alderatuz gero. Urte sasoi honetan elikagaien hotz-katean akatsen bat gertatuz gero, edo janarien kontserbazioan edo garbiketaren hanka-sartzeren bat eginez gero, oker horien eragina askoz ere handiagoa izango da, tenperatura altuek birusen eta bakterioen ugalketa bizkorra ekarriko baitute. Faktore horiek guztiak batera gertatuz gero, hesteetako narritadura oso erraz agertuko da, eta baita uda guztietan hain ohikoak diren kolitisak ere. Komeni da pauso erraz batzuk jarraitzea, udan zure urdail-hesteak behar bezala egon daitezen:

- **Baztertu otordu ugari eta astunak.** Murriztu koipe saturatuak eta frijituak, edari alkoholikoak eta gasdunak, kafeak eta esnekiak oro har.

- **Kontuz ibili janari minekin.** Zenbait espeziak, saltsak eta ongarrik koloneko eta hesteetako mukosak narritatu eta mintzen dituzte.

- **Egin zuntz ugari jan-neurria.** Elikagai integralak gai dira zure gorputza erregulatu eta babesteko, baita kolitis arriskua dagoenean ere.

- **Hoztu elikagaiak behar bezala.** Egoera onean mantentzeko, esnekiek, izozkiek eta zukuek batez



Udan, murriztu koipe saturatuak eta frijituak.

ere ez lukete hamabost minutu baino gehiago egon behar hozkailutik kanpo, kontsumitu aurretik.

- **Garbitu ondo frutak eta barazkiak.** Neurri hau oso garrantzitsua da, bakterioak eliminatu nahi badira.

- **Saiatu otorduen erritmo edo ordutegi finkoa egiten.** Etxetik kanpora gehiago irten arren, saia zaitez bat-bateko ordu aldaketa horiekin gorputza ez erotzen.

Udako trastorno horien sintomarik gogaikarriena beherakoa baldin bada ere, sarritan sabeleko mina, deshidratazioa, nekea, sukarra eta apetitu-galera ere agertzen dira kolitisarekin batera. Horrelakorik agertuz gero, eman atsedena zure digestio-aparatuari eta ez hartu solidorik 24 ordutan; hartu sueroa (botiketan salgai dago), indarberritzeko; ez egin kirolak edo ariketa fisikorik; ez jarri eguzkitan, horrela ez duzu deshidratatzeko arriskurik izango; eta zoaz medikuarengana, batez ere 24-48 ordutan ez baduzu onera egiten.

Babeslea: iametza Interaktiboa

Eskuko telefonoak, minbizi eragileen zerrendan

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) minbizi eragileen zerrendan sartu ditu maiztasun txikiko uhin elektromagnetikoak eta bat-batean mundu osoa asaldatu da. OMEk arrisku gutxiko faktoreen arloan sailkatu ditu mugikorrak eta beste, baina hori nahikoa izan da hainbat sektoreen erreakzioa eragiteko, telefonía-enpresetatik hasita. Medikuek askok eta zientzia eremuko beste hainbat aholkari ere berehala agertu dituzte zalantzak OMEk esandakoaz. Lotura honetan duzue Elhuyarrek bere webgunean argitaratutako albisteak.

<http://ttiki.com/28824> (Euskaraz)

Amigdalak edo apendizak kentzeko bihotzeko gaitzen arriskua handitzen du

European Heart Journal aldizkarian argitaratu den lan batek dio 20 urtetik beherakoei amigdalak edo apendizak erauzteak bihotzeko gaitz goiztiarren bat izateko arriskua handitzen duela.

<http://ttiki.com/28825> (Frantsesez)

Umetan musika ikasteak burmuina sendotu dezake

Kansas-ko Unibertsitatean (AEB) egindako ikerketaren arabera, haurtzaroko musika ikasteak adimena azkartzen du, baita epe luzean ere.

<http://ttiki.com/28826> (Gaztelaniaz)

Unai Brea

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Patata txar hori!

SOLANOZEOAK ETA POZOIA gaiak nondik heldua badu. *Solanum tuberosum*, patatatik, adibidez. Solanazeoetan pozoia eguzkiaren energia baliatzeko erabiltzen dituzten zati berdeetan dago, hartara hosto eta zorten guriak ez dizkiote jango. Berdetu gabeko zatiak jaten dizkiegu guk: tomateak, piperrak, alberjiniak... Jeneralean familia honetako landareen fruituak dira gure bazka, patatarena, ordea, tuberkulua. Ameriketatik ekarritako landare honen tuberkulua eguneroko jatena egin genuen eta gure elikaduraren ohorezko mailetara igoa eta goratua dugu. Hain dugu etxeko, ze edozein tuberkuluri edo erreboilari patata esaten diogu: idi-bihotzaren patata, daliaren patata...

Patataren patata jateko txarra edo pozoitsua dela, lehendik ere entzuna izango duzu. Bai anderea! Hala da, pozoia du. Esan bezala, solanazeoen zati berdeak izan ohi dira pozoiz jantziak. Patata ilunpetan jaso bada, ez du berde izpirik ere izango; baina deskuidoan argitan egon bada berdetzeko joera hartuko du. Joera hau patata tuberkulua, erreserba zati bat izaki, patata landarearen egitura-zen zati delako du. Gogoratu: patata ez da fruitua.

Berdetzen den patatak solanina alkaloidea du. Honek tripetako gorabeherak sor ditzake, baita neurologikoak ere: goragalea, gonbitoa, beherakoa,

buruko mina, eztatiko azkura, erantzun alergikoak... Muturreko pozoitzeetan haluzinazioak, konortea galtzea, hipotermia, tentsioa apaltzea eta abar izan dira.

Eta, nola arraio jaten dugu, bada? Munduaren erdia patata nan-nan, jan eta jan... Kontuz prantatuta. Berdeak dau- den zatiak ondo

kendu, eta azal eta guzti jatez gero heldu gabeko ale ttikiak jan, azala osatu eta zaildu gabe dutenak. Orintxe da hauen sasoia, baba eta ilarrekin...

Patata gerorako jasotzeko eginez gero, patata ez luze eduki, zahartu ahala gero eta solanina, hau da pozoia, gehiago du.

Marrubi urtea

Lagun batek aipatu dit aurten bezalako marrubi (*Fragaria vesca*) urterik ez duela sekula ezagutu. Eta ni ados. Mendian, bide ondoko pendiztxoetan marrubi batzuk bildu eta jateko luxua aurten pagotxa da. Inoizko marrubi gehienak jasotzen ari naiz. Udaberri lehor honek eragindakoa izango da. Dena aurreratua dator, eta guri. Hezetasunik ezak gaitzak atzeratu egiten ditu, baita usteltzeak ere eta fruituak luze ontzeko aukera du. Gereziak ere aurreratuta datoz. Aurtengo fruitu-uzta guztien ezaugarria izango denaren susmoa dut...



JAKOBA ERREKONDO



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

DAG ENDRESEN-CC BY SA



Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxa: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Errentaren gaineko lehen zerga

FLORENTZIA, 1427. *Castato* (katastro) izeneko erregistroa ezarri zen lurren jabetza kontrolatzeko. Eta erregistro horretan oinarrituta, historian lehen aldiz, errentaren gaineko zerga ezarri zuten. Hala, Erdi Aroko zerga sistema hautsi zuten, aro horretan zerga guztiak zeharkakoak baitziren.

Zerga horren arabera, Florentziako familia buru guztiek, hiru urtean behin, "errenta aitorpena" egin behar zuten, hau da, beren ondasunei buruzko txosten bat aurkeztu behar zuten. Txostenak familiaren diru sarrerak, jabetzak eta zorrak jaso behar zituen, eta familiaren kide kopurua ere kontuan hartzen zen.

Gaurko errenta aitorpenetan ez bezala, eta esperimendu berria zelako behar bada, ordaintzaileek errenta txostenetan kexak, eskaera pertsonalak edo iradokizunak eransteko aukera zuten. Zerga progresiboa zen, alegia, zenbat eta errenta edo mozkin handiagoa, orduan eta gehiago ordaindu behar zuten hiritarrek. Bestalde, zorioneko salbuespenak edo arintzeak ere hasiera-



Piero di Cosimo de' Medici (1416-1469) garaian ezarri zen Florentzian errentaren gaineko zerga. Piero mezenas eta arte bildumagile ezaguna izan zen. Kasualitate hutsa?

tik ezarri zituzten, esaterako, higiezin edo artelaren gainean.

Italiar *quattrocento*an arteak garrantzi handia hartu zuen, besteak beste, mezenasgoak artistei eman zien babes ekonomikoari esker. Hain zuzen, Florentzia izan zen mezenasgoa hedatu zen eta arteak eztanda egin zuen hiri nagusietakoa. Eta Medicitarrek, hiriko familia botere-sueneko kideak, horretan nabarmendu ziren, besteak beste, Michelangelo Buonarroti, Donatello eta Fra Angelico diruz lagunduta. Cosimo de' Medici (1389-1464) sendiaren dinastia politikoa fundatu zuen eta Uffizi galeria ezaguna eraikiarazi zuen. Piero semeari osasun ahulak ez zion aginte politikoan eragin handirik izaten utzi, baina mezenas eta bildumagile garrantzitsua izan zen.

Gizartearen garapen kulturala bultzatzeko ala errentaren gaineko zerga arintzeko ahalegina zen? Arteak zergak arintzen zituelako egin ziren artezale? Ala artezale zirelako erabaki zuten artea zerga-aringarri izatea?

Arrastoak

Urdaibain 11 metroko kroskoa aurkitu dute

URPEKO ikerlari talde batek 11 metro luze den belaontzi baten kroskoa aurkitu du Sukarrieta eta Ibarrangeluren artean hondoratuta. Bitan hautsitako kroskoaz gain, bina metroko hiru kanoi ere aurkitu dituzte urpekariek, baina adituek ez dute uste ontziaren

ekipamenduaren parte zirenik, hondoratu zen unean zeraman karga baizik. Hurrengo urratsa arrastoaren bideoa grabatzeko izango da, nola babestu aztertzeak. Datazio zehatzagoen zain, ikerlariak diote belaontzia XVIII. edo XIX. mendekoa dela.



LANDER ARBELAITZ

Gipuzkoako mankomunitateen eraketa

Zubietako errauste plantak pitzadura berria izan lezake

Bilduk Gipuzkoan izandako emaitzak zeresan handia ematen ari dira, batez ere orain arteko makroproiektuak kolokan jar ditzaketelako. Hondakinen kudeaketa eredua aipatzen da gehien, errauskailuari moratoria eskatzen dutenak gailendu baitaitezke mankomunitateetan. Hala al da? Egin ditzagun kontuak.

URKO APAOLAZA

“ZORTZI MANKOMUNITATEETATIK zazpi kontrola ditzake Bilduk Gipuzkoan”. EFE informazio agentziak bidalitako prentsa oharra bizkor zabaldu zen hauteskundeen ondorengo egunetan hainbat egunkari eta irratiko iritziemaileen bidez. Oharrak dio Bilduren kontrola “gerarazteko” modu bakarra EAJ, PSE eta PPren arteko ituna dela. Dena den, mankomunitate bakoitzean ordezkaritza nola aukeratzen den aztertuz gero, eta aurreko legegaldian EAJk eta PSEk hartu zituzten konpromisoak ikusita, ez dirudi errauskailuaren kontrakoek erakunde horien gehiengoa eskuratzeari hain erraza izango dutenik:

- Udal hauteskundeen ondoren, mankomunitateen egoera politikoa erabat aldatu da zenbait kasutan. **Debagoieneko Mankomunitatean, Urola Erdialdekoan eta Tolosaldekoan** errauskailuaren kontrakoek gehiengo osoa dute, herri nagusietan ezezik (Arrasate, Tolosa, Azpeitia, Bergara...) herri ertain eta txiki gehienetan nagusitu dira.

- **Urola Kostan** lehiak estua dirudi mankomunitatearen kontrolerako. Bertoko estatutuek diote udal guztietako zinegotzi guztiek osatuko dutela Batzar Nagusia, mankomunitatearen organo erabakigarriena. Errauskailuaren aldekoek 33 zinegotzi atera dituzte (EAJk 28, PSEk 4 eta PPk 1), errauskailua-



Carlos Ormazabal Hondakinen Partzuergoko presidentea eta Garapen Iraunkorreko diputatua Zubietako errauskailuaren lehen harria jartzen. Atzean Elorza eta Olano.

ri moratoria jartzearen aldekoek berriz 34 zinegotzi (Bilduk 30 eta Aralarrek 4). Orioko Orain plataformaren 2 zinegotzi geratzen dira tartean, haien iritzia errauskailuarekiko zein den ez dute publikoki azaldu.

- **Sasieta Mankomunitatean** zailagoa da jakitea zer gertatuko den. Goierri inguruko 22 udalerrik

osatzen dute entitatea eta horietako bakoitzak ordezkari bat du mankomunitatean, horrez gain, 5.000 biztanle gainditzen dituzten udalerriek beste ordezkari bana dute. Gauzak horrela, Beasainen, Zumarragan eta Urretxun errauskailuaren aldekoak nagusituko direla dirudi (Urretxuren kasuan EAJk PSEekin eta H1!ekin paktatuz gero), bakoitza bina

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko ordezkaritza

Erakundea	Portzentaia	Botoak	Jarrera
Foru Aldundia	%33	11,8	Zehaztugabe
San Marko	%29	9,8	Zehaztugabe
Debabarrena	%7	2,4	Errauskailuaren alde
Txingudi	%7	2,4	Errauskailuaren alde
Sasieta	%6	2,0	Zehaztuage
Debagoiena	%6	2,0	Moratoriaren alde
Tolosaldea	%5	1,8	Moratoriaren alde
Urola Kosta	%4	1,4	Zehaztuage
Urola Erdialdea	%3	1,0	Moratoriaren alde

ordezkarirekin. Horrez gain Idiazabal eta Zegaman ere alderdi horien ildoko plataformek irabazi dute. Beraz: 8 ordezkari errauskailuaren aldekoek. Moratoria eskatzen dutenek Ataun, Itsasondo, Lazkao (2 ordezkari), Legazpi (2 ordezkari), Legorreta, Ordizia (2 ordezkari), Segura eta Zaldibia dituzte. Beraz: 11 ordezkari. Baina mankomunitateko gainerako zortzi udalerritan independenteak aurkeztu dira, zein ote da horien iritzia?

• **Debabarreneko Mankomunitatean** ez dago zalantzarik, PSE eta EAJ ater dira garaile herri nagusietan (Eibar, Ermua eta Elgoibar) eta 10 ordezkari izan ditzakete mankomunitatearen organo nagusian. Bilduk aldiz 5 izango ditu. Beraz, sorpresarik ez bada Debabarrenak errauskailuaren alde egingo du.

• **Txingudiko Mankomunitatea** ere PSEren (Irunen) eta EAJren (Hondarribian) esku geratu da.

• **Bukatzeko, San Marko Mankomunitatea** dago, Gipuzkoako populatuena. San Markon 157 boto daude jokoan, biztanleriaren arabera banatuak: Donostiak 47; Errenterriak 17; Hernanik, Lasartek eta Pasaia 13; Oiartzunek, Usurbilek, Lezok eta Urnietak 11; eta Astigarragak 10. Bilduk gehiengo osoa lortu duen udalerririk 69 boto dauzka eta 10 boto falta zaizkio San Markoren kontrola eskuratzeko (79 boto). Donostian eta Errenterrian Bilduk irabazi du, baina errauskailuaren aldekoak (PSE, EAJ eta PP) San Markoren ordezkaritza erabakitzeke udal plenoetan batuz gero, gehiengo dira, Urnietan eta Lasarten bezalaxe.

Partzuergoaren kontrola

Zubietako proiektu “estrategikoa” Hondakinen Partzuergoaren bidez bultzatu izan dute errausketaren aldekoek. Partzuergoa mankomunitateek eta Aldundiak osatzen dute. Mankomunitate bakoitzak partzuergoan duen ordezkaritza biztanleriaren arabera da (ikusi taula), aldiz, Aldundiak berea du erakundearen %33a, Garapen Iraunkorreko diputatuak ordezkaturik.

Beraz, moratoria eskatzen duten indarrek Partzuergoko ordezkartzearen %14 daukate soilik segurtuta. Urola Kostan eta Sasietan balantza haien alde jarritz gero %24 edukiko lukete. Bistan da San Marko eta Aldundia direla klabeak Partzuergoa kontrolatzeko. Hortaz, errauste plantaren aldekoek (EAJ, PSE eta PP) derrigorrez paktatu beharra dute, batzuetan biren artean (Errenterrian, Urnietan eta Lasarten EAJ eta PSE nahikoa dira) eta bestetan hiruren artean (Donostian PPren babesa ere behar dute).

Ez du erraza ematen errauskailuaren kontrakoek Hondakinen Partzuergoan agindu ahal izatea. Errausketaren aldeko alderdi nagusiak hasi dira jada posizioak hartzen “proiektu estrategikoen”, “Gipuzkoako aurrerapenaren” eta bestelako argudioen izenean. PSEk eta PPk oso garbi dute, EAJk ez hainbeste: “Nola gobernatu liteke 58 udalerriren oposizioa izango duen koordinazio erakunde bat?” Galdeztzen zuen Txema Monterok *Onda Vascan* egindako elkarrizketan. Beste aldundietan eta hiriburuetan

Descenso de Cañones/Espeleología Arroila Jaitsierak/Espeleología
Puenting/Escalada/Raquetas de nieve Zubi saltoa/Eskalada/Eiur erraketak
Cursos técnicos/Viajes de aventura Ikastaro teknikoak/Abentura bidaiak
y mucho mas... eta askoz gehiago...

www.inguruabentura.com
info@inguruabentura.com



Tel: 635 748 948



Aldundiak bankuei agindu die, errauskailuaren finantzazioa kolokan jar dezaketen erabakien kontra bozkatuko duela



B.2. Egin beharrekoak

(I) - Kontsurtzioko kide izanik, Aldundiak ez du onartuko, eta kasu horretan kontrako botoa emango du, hauekiko ondorioen bat dakarren edozein erabaki:

(a)- Aldatzea Kontsurtzioaren estatutuak nahiz araudia, edo Kudeaketa Sozietatearen eta

Joan den legealdian, EAJko Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatu zela, Aldundiak konpromiso dokumentu bat igorri zien Zubietako errauskailua finantzatzeko kreditua emango dien bankuei. Aldundiak agindu die, Hondakinen Partzuergoak erabakiren bat hartu nahi badu Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak (GHK) banku horiekiko dituen "betebeharrak" ahultzen dituen, kontra bozkatuko duela, hala nola: Partzuergoaren estatutuak aldatzen direnean, GHKrekin duten hitzarmenari eragiten dionean edota finantzazioa estaltzeko gai ez diren tarifak ezarri nahi direnean. GHK Hondakinen Partzuergoaren enpresa publikoa da, errauskailua eraikitzeko sortua. Konpromiso horren arabera Aldundia derrigorturik legoke, bertan agintzen duenak agintzen duela ere, errauskailuaren finantzazioa babestera.

Otsailean sinatu zuen GHK-k Europako Inbertsio Bankuarekin eta beste bi finantza erakunde pribaturekin errauskailua ordaintzeko kreditua. Greenpeacek salatu zuen baldintza oso gogorrak onartu zituela eta kontratuak gipuzkoarrak "hipotekatuko" zituela 21 urtetarako. Era berean, Gipuzkoako hainbat herritako alkateek Markel Olano orduko ahaldu nagusiari adierazi zioten ez zela momentua, hauteskunde bezperan, horrelako erabakiak hartzeko, Aldundia eta udalak banku horien "eskuetan" uzten zituelako hurrengo legealdietan.

paktatu zuen, San Markoren kontrolerako giltza emanez—.

Erraustegia "behetik gora" gelditu

Dena den, errauste planta "goitik behera" geraraztea zaila dirudien arren, "behetik gora" gerarazteko aukera inoiz baina handiagoa da. Atez ateko zabor bilketa indarturik atera da egunotan bi arrazoiengatik: Bat, atez atekoa ezarri duten udalerrietan (Usurbilen, Hernanin, Oiartzunen eta Antzuolan) errefer-

Moratoria eskatzen duten indarrek, Partzuergoko ordezkariaren %14 soilik dute erabat ziurtatuta

rendum modura hartu dira udal hauteskundeak eta aldekoek garai-pen itzela lortu dute. Bi, hauteskunde bezperan EAEko Auzitegi Gorenak ebazpena kaleratu zuen, Hernanik atez ateko sistemarekin jarraitu dezakeela esanez.

Datorren legealdian, Bilduk gehiago osoa lortu duen herrietan atez ateko zabor bilketa ezartzen badute, Zubietako errauskailuari asko konplikatu zaizkio kontuak. Errauskailuak 260.000 tona zabor erretzeko gaitasuna izango du, baina Gipuzkoan atez atekoa zabalduz gero ez dirudi horren erdira ere iritsiko denik. Prest egongo al dira hain errentagarritasun gutxiko lan-tegia martxan jartzeko? ■

Bartzelonako haserretuen kanpaldia

Heterodoxia kanpin-denden barnean

M-15 mugimenduak Plaça de Catalunya mugarri bat jarri zuen maiatzaren 27an, akanpatuek poliziaren oldarraldiaren aurrean erakutsitako jarrera irmoarekin. Bartzelonan haserretuak auzoetara ari dira hedatzen eta mobilizazio gehiago aurreikusi dituzte. Hona hemen, kanpaldi barrutik egindako begirada.

ALBERTO PRADILLA

Argazkia: Samuel Rodriguez

“EZIN DUGU BELDURRIK IZAN. Bartzelonako jarraitzaileak gu bezalakoak dira. Gu bezala izorraturik daude”, dio gazte batek, mikrofonoa eskuan, milaka pertsonen aurrean. Poliziak plaza hustutzearen beldurra dikotomi berezia sortu du kanpaldian: futbolzaleen eta *hasarretuen* artean. Gazte batek gauzak argitu dituen arte: “Hemen *culé* asko dago eta arazo ekonomikoak denok ditugu”. Beste interbentzio bat: “Alderdi politiko bat sortu behar dugu, gure ideiak Parlamentean presente egon daitezen”, eskatu du rastadun batek. Txistuak entzun dira, bere iritzia ez du jarraitzaile askorik izan. “Bankuen aurka borrokatzeko tresnarik onena bankuan sartzean gorputzarekin mugimendu hau egitea da”, dio txorraturik dirudien gizon batek, Shakiraren dantza imitatzen saiatzen den bitartean. Maiatzaren 26a da, osteguna, eta Bartzelonako Plaça de Catalunya-ko kanpaldian daudenak eztabaidan ari dira, ea datozen egunetan zer egin. Ehunka pertsonak hartu dute parte asanblada erraldoian, handik 12 ordura gertatuko dena jakin gabe. Haien artean denetarik dago: antisistemak, mugimendu independentistako kideak, hippiek, mobilizazioetan parte hartu ohituta dutenak, inoiz mobilizatu ez diren gazte ‘apolitikoak’ eta bazterturik bizi diren pertsonak. Multzo heterodoxo eta politikoa – baina ez



Plaça de Catalunya husteari modu ahalik eta baketsuenean erantzun zioten.

partidista– osatzen dute. Eztabaidan bilduta dauden bitartean, Mossos D’Esquadra kanpaldia hustutzeko prestatzen ari dira. Baina ezin izango dute. Azken bi asteetan, haserretuen mugimendua sortu zenetik, begiradak Madrilgo Puerta del Sol-era zeuden zuzenduta. Baina CiUk, Plaça de Catalunya hustutzen

saiatu zen momentuan, Katalunian kanpaldia titularretan jarri zuen.

Auzoetara zabalduz

Mobilizazio interesgarria da hau. Alde batetik, Bartzelonako tradizio militante eta sinbolikoa nabari delako. Bestetik, katalanismoa nola jorratu den ikus daitekeelako. Ez da

kasualitatea kanpaldia auzoetara eramaten hemen hasi izana. Sol-en desentralizazioa erabaki zutenerako, Sants-en, Poble Nou-n edo Gracian hasiak ziren beraien asanblada propioak antolatzen. Hor dago etorkizuna, hemendik zer edo zer sortzen bada. “Catalunyako ghettotik atera behar gara. Ezin dugu ziurtatu noiz hasiko den gure dekadentzia. Eta orain, jendea pozik eta garaipen sentazioarekin dagoenez, hasi behar dugu desentralizazioarekin”. Hitz horiekin azaldu digu bere jarrera Laiak, Bartzelonako ikasleak. Plazan jarraitu ala ez, eztabaida interferentzia askorekin egin da. Lehenengo, hustutzeko saiakera. Gero, Barçaren partidua... Antolakuntzaren ustez orain da hitz egiteko momentua.

Zaila da asanbladaren iritzia kontrolatzea. Hori ikusi dute Madrilen. Komisioko bozeramaileak plazatik alde egitearen aldekoak ziren. Baina bozketa egitean galdu egin zuten. Gauza parekoa gertatu zen Plaça de Catalunyan maiatzaren 27an. Milaka pertsonen parte hartzen dute egunero egiten diren asanbladetan, 3.000 lagunek gutxi gorabehera, Bartzelonaren kasuan. Honakoa da sistema: proposamen bakoitza komisiio zehatz batean hitz egiten da. Talde horietan parte hartzea librea da eta proposamen finko bat eramaten dute asanblada orokorrera. 40 esku kontra baldin badaude, ez doa aurrera. Kopuru berak eztabaida gehiago eskatzen badu, testua komisiara itzultzen da. Harritzekoa da, baina normalean adostasunera iristen dira. Dena den, onartu beharra dago hainbeste orduz luzatzen denez, bigarren ordurako jende asko garagardoak saltzen dituzten pakistandarrei begira dagoela gai ordenari baino. “Asanblada ordu finko batean bukatzea pentsatu behar genuke”, dio Mireiak, azterketa garaian demokrazia parte hartzailearen arazotxo horiek sufritzen ari den ikasleak.

Beste kontu bat edukiak dira. Adostutako eskakizun minimoak irakurtzen baditugu (<http://acampadabcn.wordpress.com/demandes>), abstrakzio ugariarekin egingo dugu topo: politikariak pribilegiotik ez; bankariak pribilegiotik ez;

aberatsek pribilegiotik ez. “Denok gaude ados gauzak hobetzearekin. Inork ez du esaten okerrera joan nahi duenik. Horregatik mobilizatu behar gara gai konkretuekin”, dio ironia erabiliz Sergik, lehenengo egunetatik kanpaldian dabilen gazteak. Hau ez da lehenbiziko mobilizazioa Sergirentzat. Eta pozik dago. Bere ustez, Bartzelonan lortu dute teoritik praktikara pasatzea, eta Convergen-

Sol-en desentralizazioa erabaki zutenerako, Sants-en, Poble Nou-n eta Gracian hasita zeuden beraien asanblada propioarekin

cia i Uniok sistema publikoan –batez ere Hezkuntza eta Osasun arloetan– bultzatzen ari diren murrizketak gelditzeko mobilizatu dira. Asanbladetan eta komisiotik denetarik hitz egiten da: animalien eskubideetatik copylefteraino. Baina gero, erronka, helburu konkretuak lortzea da. Hurrengo helburua ekainaren 15ean Parlament-a blokatzea eta politikari sarrerara eragoztekoa da, aurrekontuak bozkatu behar diren egunean hain zuzen. Giza katea duela bi aste konbokatzen zen, Benetako Demokrazia Orain mugimenduak urriaren 15erako mundu mailako manifestazioa deitu aurretik.

Katalanismoaren itzala

Euskal Herritik ikusita, Estatuko haserretuen mobilizazioak kutsu zentralista du. Eta, eztabaida eta jarrera batzuk Bartzelonan ere erre-

pikatu dira. “Gaur da asanblada katalanez egiten ari diren lehenengo eguna”, zioen kezkatuta Meritxell Freixas gazteak, maiatzaren 25ean. Aste eta erdiz koordinatzailea gartzelania hutsez aritu da. Beste adibide bat: autodeterminazio eskubidea ez da gutxiengoaren eskakizun zerrendan agertzen. “Aldarrikapen horiek jendea banatzeko balio dute bakarrik”, argudiatu du gizon batek autodeterminaziori buruzko komisioren eztabaidan. Bestalde, Hauteskunde Legearen erreforma, Madrilgo borroka izarra, ez dago Bartzelonako eskakizun orrialdean. “Adostasunik ez dago”, diote komisiotatik. Badakite, azken finean, Espainiako Estatuko Kongresuan alderdi katalanek indarra galduko luketela erreforma hori onartuz gero. *Spanish revolution* esloganarekin agertu ziren kartelak ez ziren jende guztiaren gustuko, eta soluzio bat lortu zuten irudimena erabiliz: *Social Revolution* bihurtu zen.

“Jendea kokoteraino dago. Zerbait aldatu behar dugu”. Nadia Bstregi –ez da euskalduna, abizenak kontrakoa pentsatzera eramaten duen arren– ikaslea da. Bere lehenengo manifestaldiak dira hauek eta ia egunero saiatzen da hemen lo egiten. Agian, bere profila da komunikabideetan saltzen saiatu direna: Andres Calamarok kantatzen zuen “no sé qué quiero, pero se lo que no quiero” karikaturarena. Zaila da heterodoxoen kanpaldian definitzea. Baina zerbait aldatzen ari da. Eta Mossos d’Esquadren kargen aurrean nola mantendu diren ikusita, esan dezakegu zer edo zer gertatzen ari dela: beldurra galtzen ari direla. ■



*Eskezu ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenorako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es



Tolosako Babarruna



Hoberenak
soilik
aukeratzen
ditugu

☎ 943 650 253

www.tolosakobabarruna.com

Ongota

Oilasko zaintzaileen hizkuntza galzorian

Ongota hizkuntza hiltzear dago. Noiz gertatuko den inork ez daki, baina ez dira urte asko pasako. Zazpi pertsonen baino ez diote eusten hizkuntzari. Etiopia hegoaldean bizi dira, Behe Omo bailaran. Weyto ibaiaren mendebaldeko arboladi batean dute euren herria.

Testua eta argazkiak:

INAKI GURIDI

GANAME WADO DA, ziurrenik, ongota hitz egiten dutenen artean gazteena. Bere aurpegiko zimurrei begiratuta, berrogeita hamar urte dituela esan liteke. Itxura fisikoaren arabera asmatu behar da hemen adina, tribu honetan ez baitute egutegirik jarraitzen eta inork ez baitaki bakoitza zein urtetan jaio zen eta, ondorioz, zenbat urte dituen.

Wadok gogoan du bera umea zenean inguruko denek zein hizkuntza egiten zuten. “Nire gurasoek, eta haien anai-arrebek, denek hitz egiten zuten ongota. Gaur egun umei galdetzen diezu zerbait hizkuntza honetan eta ez dakite erantzuten. Agian batzuek zerbait ulertzen dute, baina erantzuteko adina ez”.

Albotik beste gizonezko batek hartu du hitza. “Zaila da ongota hizkuntza, eta umeek horregatik ez dute ikasi. Tsamay hizkuntza errazagoa da, eta horri heldu diote”. Geda Kaula da, adinean aurrera doan beste gizonezko bat. Bizilagunen hizkuntza nagusitu da herrian, tsamay hizkuntza.

Afrikako euskara

Sailkatu gabeko hizkuntza da ongota. Inork ez daki nondik datorren, zein beste hizkuntzari egon daitekeen lotuta. Horrexegatik, Graziano Sava hizkuntzalari siziliarrak euskararekin konparatzen du. “Nire tesi zuzendariari proposatu nionean hizkuntza hau ikertzea, izenburu



Ongota komunitatearen posizio soziala agerian geratzen da azokan. Gune zabalena tsamay jendeak hartzen du eta ongota etniakoak (argazkian) txokoan esertzen dira. Maila sozialak hizkuntzaren galeran badu zerikusia.

hori erabili nuen: *Ongota, Afrikako euskara*. Izenburua ikusi zuenean segituan onartu zidan ikerketa gaia”.

Hizkuntzalari batzuek diote nilosaharar familiakoa dela ongota. Beste batzuek, aldiz, afro-asiarra dela. Aklilu Yilma, Addis Abebako Unibertsitateko hizkuntzalariaren ustez, tokian bertan sorturiko hizkuntza da, batetik eta bestetik etorritako hiltunen ekarpenak bilduz. “Ongotek eurek diote hainbat tokitako jendea ezarri zela Weyto ibaiaren puntu honetan. Maale, Banna eta Borona bezalako tokietatik eto-

rri ziren. Ezin zuten, ordea, elkar ulertu, eta denen artean sortu zuten ongota”. Toki eta klan izenak kontuan hartuta, teoria honi ematen dio Yilmak sinesgarritasuna, “euren jatorri bezala aipatzen dituzten inguru horietako izen ugari erabiltzen baitituzte”.

Morfologian ere hizkuntza berezia da. Graziano Savak dioenez, “inguruko hizkuntza guztiek oso morfologia aberatsa dute, genero, plural eta bestelakoak adierazteko atzizki ugariarekin. Ongota, aldiz, zentzu horretan oso forma soilekoa da”.

Galera etengabe eta hedatua

Ongota hizkuntza ez da, zoritxarrez, Etiopian galbidean dagoen bakarra. Ongotak bizi diren herrixkatik 40 bat kilometrora, arbore etniako gizon-emakumeak bizi dira. Ahuntz larruz egindako gonaz eta lepoko koloretzuz, dotore janzten dira. Komunitatea berez handia izan arren, soilik 4.000 dira arbore hizkuntza egunerokoan erabiltzen dutenak. Etiopia hegoaldean nagusi den oromo hizkuntzaren borana dialektoan mintzaten dira gehienak.

Cabu hizkuntza ere arriskuan dago. Etiopia mendebaldeko eta ekialdeko bi barrutitan erabiltzen dute mila hitzun inguruk. Baso eta oihanetan bizi dira, oso oinarritzko nekazaritza eta abeltzaintza ogibide dituztela. Orain arte bizi izan diren eremuetan, ordea, kafe eta te soroak jartzen hasi dira hainbat korporazio handi. Kibebete Tsehay hizkuntzalari etiopiarra ari da hizkuntza hori ikertzen, eta berak dioenez, kafe produkzio honek kalte handia egin dio hizkuntzari: "Kafe eta te soro horiek jarri dituztelako, cabu komunitateko herri asko tokiz aldatu dituzte, eta beste hizkuntza batzuk nagusi diren herrietan sakabanatu. Hori kolpe gogorra izan da berez ahul zegoen hizkuntza-erentzat". Inguruko gobernuek ez omen dute inolako erreparatu eta konturik izan bizileku aldaketak horiek egiterakoan. Arriskua handia den arren, Tsehay ikusten du itxaropen izpi bat: "Oraindik badaude haurrak cabu hizkuntza lehen hizkuntza bezala jasotzen dutenak".

Ezin dute gauza bera esan nayi komunitateko hitzuek. Haur bakar bat ere ez da hizkuntza ikasten ari. Komunitateko gizonak hartutako ezkontza joera berriak



Arbore komunitatea handia da, baina 4.000 baino ez dira egunerokoan arbore hizkuntza erabiltzen dutenak. Gehienek oromo hizkuntzaren borana dialektoa hitz egiten dute.

dira horren erantzule. Aklilu Yilmak azaldutakoaren arabera, "nayi gizonezkoak kafa etniako emakumeekin hasi dira ezkontzen. Ama arduratzen da beti umearen heziketaz eta amak kafa hitz egiten duenez haurrari ez zaio nayi hizkuntza iristen". Oraindik 2.500 hitzun gertatzen direla dio Yilmak, "baina gakoa umeek ikastea da. Hizkuntza umeengana ez bada iristen, jai dago".

Kuwegu, argoba, anfilo... Hitzun oso gutxi dituzte hizkuntzok eta arriskuan dauden hizkuntzen zerrenda luzea da. Unescok iazko udazkenean argitaratutako hizkuntzen atlasaren arabera Etiopian erabiltzen diren 83 hizkuntzetatik 24 daude galtzeko arriskuan. Azken mende erdian hiru hizkuntza galdu dira Afrika ekialdeko herrialde honetan.

Galbidearen zergatia

Ongoten herrian sarri galdetu arren zergatik utzi dioten euren hizkuntza erabiltzeari, erantzun sendorik ezin da aurkitu. Geda Kaulak arestian esandakoa errepikatu du: "Oso zaila da gure hizkuntza, gogorra da ikasteko. Tsamay hizkuntza errazagoa da". Umetatik hartzen den ama

hizkuntza zailik ez dago, ordea.

Ongota komunitatearen baldintza sozio-ekonomikoarekin zerikusi gehiago izan dezake galerak. Aklilu Yilmak dioenez, "gutxietsitako komunitatea izan da. Ez dute ganadurik, nekazariak dira soilik, eta Etiopia hegoaldean ganadurik ez duena, ez da inor".

Ongoten herrixkan, banbu egurrez eta belar lehorrez egindako etxolen inguruan, oilasko bakan batzuk ageri dira, soilik. "Ingurukoek oilasko-zaintzaile deitzen diete, erdeinuz", dio Yilmak.

"Gu nekazariak gara" dio Geda Saulak. "Artoa eta sorgoa (basartoa) lantzen ditugu soroan. Basoan

Babeslea: Getxoko Udala



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO
Euskaraz Zehar

Zabaldu euskararen atea

%50 edo **%30** eko deskontua

establezimenduen errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu.

%10 edo **%5** eko deskontu gehigarria

Getxoko enpresa hauetan eskatzean: TOLDOS Y PERSIANAS MURGUA, RÓTULOS PUBLIARTE, CIANOPLAN, ULI ARTE PERSIANAS, LA REPRO, KALKO, KISER, AMETS eta RÓTULOS ARRILUCE.



9E+I
www.9e+i.net
94 415 22 52
getxo@getxo.net

berriz, erleak ditugu eta ezta ateratzen dugu haietatik. Inoiz ez dugu animaliarik izan”.

Belaunaldi berrien begietara hobe da bizilagunen bizimodua. Sozialki aurreratuagotzat dituzte tsamay etniakoak, eta ondorioz haien hizkuntza ere bai. Savaren arabera, “gazteek diote ongota hizkuntza ez dela erabilgarria, zaila dela eta gainera arkaikoa. Ongota direla ere ukatu egiten dute askotan, eta tsamay direla esaten dute”.

Weyto herriko azokara joaten dira ongotak larunbatetan. Beraien herrixkatik dozena bat kilometrora dago. Euren uztak salgai jartzen dituzte eta behar dituzten beste produktu batzuk erosi. Zuhaitz handi baten itzalean eseri, eta arto fermentatuz egindako alkohol dun edaria, gola, lagunartean edanez ematen dute eguna.

Azokako kokapenean agerikoa da ongoten posizio soziala. Zabalgunerik handiena tsamay jendeak hartzen du, eta ongota dena zoko batean esertzen da. Besteekin ere izaten dute harremana, baina eseretzeko dagokien tokia dagokie.

Maale Godak, hizkuntzalarien arabera ongota garbi eta ederra egiten duen emakumeak, azokan bertan aitortu digu pena sentitzen duela bere hizkuntza galtzera doalako. “Nahiago nuke umeek hizkuntzari eutsiko baliote, baina inork ez du egiten”.

Alboan eserita du Erre Sagane, adineko emakumea hau ere, eta galderarekin haserretu ere egin da apur bat. “Zer egingo dugu ba guk? Inork ez badu hitz egiten jarraitzen, ez da gure errua”.

Graziano Savak nabaritu du emakumeek galeraren kontzientzia garatuago dutela. “Gizonek beti errazagoa dute ohitura sozial berrietara egokitzea eta kasu honetan, tsamayen erako bizimodura errazago egin dira. Emakumeek, ordea, aldaketa sozialerako aukera gutxiago dute, eta eurenari eusten diote. Euren a galtzen ari dela ikusten dute orain, euren hizkuntza, euren identitatea...”.

Biziberritzea posible?

Hizkuntzari eusteko ez da, orain arte behintzat, aparteko saiakerarik



Ongota gizonek emakumeek baino errazago bereganatu dute tsamay jendearen bizimodua eta emakumeek baino kontzientzia gutxiago dute galtzen ari diren kultura eta hizkuntza.

egin. Administrazioak, bere hizkuntza erregistroetan, ongota denik ere ez du aitortzen. Hala ere gobernuak ez die errurik egotzen Aklilu Yilmak. “Hizkuntza galtzear denean, erabiltzeari uzten zaionean, nork du errua? Gobernuak? Hizkuntzalariek? Ez. Ardura hizkuntza hori erabiltzeari utzi dion komunitatearena da”.

Argi dago, ordea, komunitatea testuinguruak baldintzatzen duela eta hizkuntzaren transmisioa bermatzen duten elementuak, tartean hezkuntza sistema, administrazioak finkatzen duela.

Ongotak bizi diren herrixkan badago ikastetxe txiki bat. Egunean bi orduko eskolak ematen dizkie maisuak hogeitatu urerik. Amharera eta tsamay hizkuntzak erabiltzen dira.

Graziano Savaren arabera, Etiopiako egoera ez da okerrera hizkuntza gutxituentzat. “Etiopian ez dago hizkuntza ofizialik. Hizkuntza administratiboa amharera da, baina gainerako hizkuntza guztiak maila berean daude. Gobernuak bideratzen du dirua hainbat hizkuntzatan testuliburuak egiteko, baina ez da erraza dauden baliabideak ongi erabiltzea. Herrialdearen hegoaldean soilik 44 talde etniko daude, beste hainbeste hizkuntza erabiltzen dituztenak. Orain arte


sekula idatzi ere egin ez diren hizkuntza horietan materiala prestatzea eta hezkuntza eskaintzea ez da erraza”.

Ongota hiztun apurrek, ordea, badute euren eskolan hizkuntza biziberrituko den esperantza. “Tsegaye liburua prestatzen ari da, eta haiek egindakoan hasiko gara eskolan umeek berriz ere ongota irakasten”, dio Geda Kaulak.

Tsegaye, Graziano Sava da. Bertakoek hala deitzen diote. Galtzear den hizkuntza dokumentatzeaz gain, gramatika liburua prestatzen ari da eta baita ongota-tsamay-amharera hiztegia ere. “Ziurrenik saihestezina izango da orain hizkuntza hiltzea. Baina benetan jabetzen badira zer galdu duten, eta ondorengo belaunaldiei erakutsi nahi badiete, izan dezatela gutxienez ikasten hasteko materiala eta aukera”.

Edozein hizkuntza galtzen denean, bizitzeko era bat eta ingurua deskribatzeko modu bat galtzen dira. Ordezkaezina da galera. Savak uste du, ordea, galtzen dena isolatutako hizkuntza denean, galera handiagoa dela. “Ongota edo euskara hizkuntzak galtzea, beste edozein hizkuntza galtzea baino tamalgarriagoa da. Bakarrak direlako, euren modukorik ez delako geratuko”. ■

**Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte itxoiten dugu maiz**



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK

Euskaraz Bizi eguna Azkainen

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZEK ekainaren 11n egingo du Azkainen (Lapurdi) Euskaraz Bizi eguna. Euskararentzako lehentasunezko estatusa eskatuko dute eta euskaldunei euskaraz bizitzeko hautua egiteko deia zabalduko die.

Euskalterm eraberritua

EUSKALTERM, Terminologia Banku Publikoa, eraberritu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Hemendik aurrera, besteak beste, egunero eguneratuko dute bankua

eta erabilgarriagoa izango da. Era-biltzaileek iradokizunak egiteko aukera izango dute. Terminologia bankua eraberritzeaz gain, hamalau hiztegi terminologiko aurkeztu ditu HPSk.

“Hizkuntzen Estandarizazioa” liburua

GARABIDEK iaz hizkuntzen berreskurapena jorratzeko ireki zuen bideari segi dio eta bigarren liburua eta 20 minutuko DVDa kaleratu ditu. Hizkuntzak berreskuratzeko estandarizazioak duen garrantzia azpimarratzeko euskara batuaren sorreraz eta beharrez ari da liburua.

BAHEA

Paula Kasaresek gipuzkoaeskara.com-en esanak: “Historikoki mundu zabalean gorren zeinu hizkuntzak gutxietsi eta zokoratu dituzte, baita debekatu ere zenbait garai eta herritan. Halere, zeinu mintzaren hizkuntzatasuna frogatzen zuten ikerketekin batera gorrek komunitate izatearen kontzientzia linguistikoa, hau da, beren buruaren gaineko ikusmolde sozio-kulturala, garatu dute. Gorrek zeinu mintzaira beren berezko hizkuntzatzat aldarrikatzen dute eta zabaldua da gorrak hizkuntza gutxiengo bat gehiago direla defendatzen duen ideia. Finlandian, adibidez, suomiera eta suediera dira hizkuntza ofizialak baina 1995eko Konstituzioak zeinu mintzaira gutxiengo hizkuntzat hartu zuen, (...). 2007an Espainiako Gobernuak zeinu hizkuntzak aitortzen dituen 27/2007 Legea onartu zuen baina arau horrek espainiar eta kataluniar zeinu hizkuntzak baino ez ditu espresuki aipatzen. Euskal zeinu mintzaira oraindik ez da ofizialki onartu”.

Bego Bitorika Sortzen Ikasbatuaz elkarteko kideak Isabel Celaári, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuari, Berrian esandakoak hiruleko sistema dela-eta: “2011ko hasieran, iazko ikasturtean abiatutako esperientzia zabaldu nahi izan zuen, baina irailean izan zituen arazo berdinekin topatu zen: ikastetxeek ez zioten espero zuen erantzunik eman. Beraz, beraien eredu, eta proiektu izarra, saltzeko azpijoko bat asmatu zuten. Taldeka biltzen hasi ziren ikastetxeekin, eskaintza bereziak eginez: irakasle eta baliabide gehiago izango lituzkete, eta proiektuaren betebeharrak malguagoak izango lirateke. Ikastetxeetan ikasturte zaila izan dute, irakasle eta ordezkapenen murrizketa ikaragarriarekin, eta bazekiten alde horretatik batzuk erakarriko zituztela”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Mondragon Taldea eta Bankoa-Ipar Kutxa

Krisiaren testuinguruan, astero ez da izaten finantza eta ekonomia albiste onik Euskal Herrian. Horregatik, nabarmendu nahiko genituzke joan den asteak ekarri dizkigun bi notizia esanguratsu: Mondragon Taldeak etekinak eta lanpostuak berreskuratu ditu, eta Ipar Kutxak eta Bankoak banku entitate berria sortu dute. Finantza arloko euskal lurraldetasunaren egituraketarako, eta Mondragon Taldeak lanpostuak berreskuratzeko duen eragiteko gaitasunerako, bide onetik doazen albisteak dira biak ala biak.

Mondragon Taldeak (85.066 enplegu, horietatik 36.950 Hego Euskal Herrian) 178 milioi euroko etekinak izan zituen 2010ean, aurreko urtekoak hirukoiztuz. Industrian berreskuratu zuen enplegua, 1.378 lanpostu gehiago hain zuzen ere. Nazioartean hedatzearen eta berrikuntzaren alde egin zuen beste behin ere. Eraitza on horiek ez ditu izan neurri ekonomiko eta finantzarioengatik soilik, baita langileek onartutako neurri sozialengatik ere. Mondragon Taldeko industria arloak hobetzen badu, bere inguruak ere hobetuko du, besteengan eragiteko duen ahalmenagatik.

Bi euskal finantza entitate txikik, Bankoak eta Ipar Kutxak, erabaki dute euskal banku erakunde berria sortzea. Credit Agricole frantsesa buru duela, eta egoitza sozialak Bilbon eta Donostian dituela, Euskal Herri osoan arituko da. 132 sukurtsal eta 667 langile izango ditu. Bi erakundeek beste batzuen kontrakoa egin dute, aurrezki kutxa batzuk Espainiako Estatura hedatu baitira –BBK Cajasurrekin batu zen eta CAN Banca Cívicarekin—. Ea Ipar Kutxaren eta Bankoaren mugimendu honen buruan, noizbait, euskal aurrezki kutxen fusioa datorren, eta horrela, Euskal Herriaren interesen zerbitzura egongo den finantza erakunde indartsua sortzen den.

Juan Mari Arregi

PSE-PSN, zer behar dute giro berrian murgiltzeko?

BAKE PROZESUA. Eta normalizazio politikoa. Ekonomi krisiarekin batera, horiek dira une honetan euskal gizarteak dituen lehentasun nagusiak, eta alde horretatik estrategikoa da aurrera begira EAJk eta Bilduk elkarrekin egin behar duten lana. Hamar urtez elkarri begiratu barik egon ondoren –Batasuna eta EAJ– bada ordua gutxienez gai honetan arduratsu jarduteko, beti ere bakoitzak bere izaera eta helburuei eutsiz.

Bi eremuek aitortzen dute badirela elkar lanerako tar-teak, eta alde bietatik ezagun dute elkarlan horrek gizarteko esparru oso zabaletan sortzen duen ilusioa. Bildu aspaldi ari da egiten bere bidea bakearen eremu honetan, gizartean ondo ikusi da lan hori eta saritu ere bai. EAJk bide garrantzitsua du egiteko oraindik eta, horretarako, Madrilen Zapaterorekin lantzen ari dena ikusgarri egin behar du, bakearen eremuan estrategiarik bada behinik behin.

Hiru eremu giltzarri dira mugimenduak egiten hasteko: presoena, alderdien mahaia eta bizikidetzaren prozesuari ekitea. Euskal gizartean, gehiengo oso handi batek dagoeneko ez du ulertzen zergatik ezin den abian jarri bake prozesu sendo bat. Hemengo PPK ere badaki hori denbora kontua besterik ez dela, nahiz eta formalki beren gotorlekuan eusten dion. PSEren jarrera ofiziala, ordea, ulertezina da –barruko askorentzat ere bai– eta ezingo du asko iraun egungo posizioan.

BILDU GUTXIENGOAN. Oso litekeena da Bilduk agintzea Gipuzkoako Diputazioan eta Donostiako Udalean. Esperientziak dioskunez, hala ere, azken unera arte itxaron behar da. Larunbatean erabakiko da udale-



tan eta datorren astelehenean eratu-ko dira Biltzar Nagusiak, eta beranduenez uztailaren lehen egunetan hautatuko da diputatu nagusia.

Bildu bere programa aurrera eramaten saiatuko da unean uneko akordioak lortuz, eta gobernagarritasuna hain funtsezkoa bada, hori ikusiko da egunerokoan oposizioak zein arduratsu jokatzeko duen. Baina zenbait gai garrantzitsutan ez da akordioa izango (erraustegia eta Pasaiaiko kanpo portua eraikitzeak behintzat). Bilduk ezingo ditu proiektu handiak atzera bota besterik gabe, baina bai geldotu edo geldiarazi. Adibidez, behin eta berriz erraustegiaren alde eginda ere, oposizioak ezin du aurrera atera. Zentsura mozioa da bide bakarra eta Bilduk legealdi osoan zehar izango du berau buru gainean.

PSE, AZKENEAN ZER? Donostian EAJk Ernesto Gasco sostengatuko duen zain daude sozialistak, baina jeltzaleek argi esan dute ezetz. Biltzar Nagusietan, Iñaki Arriolak argi dio “ezetz eta ezetz”, oraingoan ez dutela Markel Olano sostengatuko ezerekin truke. Baina Olanok, badaezpada, bere burua hautagai gisa aurkeztuko du, ea miraria ematen den,

berak dioen bezala, “bere lurralde eredia eta programa azaltzeko ezinbestekoa delako hautagai gisa aurkeztea”.

Jaurralitzaren osaketan bere sorreratik da korapiloa, baina hemen zalantza gutxiago dago oraingoz eta Araban PP sostengatzearen truke, honek PSEri eutsiko dio Ajuria Enean. Eta itunak 2013ra arte irauteko aukera asko ditu, baldin eta PSOEk bake prozesuari sendo ekiten ez badio. Baina ez dago garbi zer egingo duen Alfredo Perez Rubalcabak. Garai batean Euskal Herrian oso garbi zegoen ETAk armak utziz gero Madrilek presoena di-da konponduko zuela; gaur egun ez dago hain argi. Beste garai batzuetako aukerak ez baliatzeak –Lizarra-Garazikoa eta Loiolakoa bereziki– alor honetan faktura serioa pasa diezaiokie ezker abertzaleari. Hala ere, logikoena eta zentzuzkoena da alor hau ere apurka konpontzen joatea.

PSN-REN GAINBEHERA. Ados, azken unera arte oraindik denetik gerta daiteke, baina dagoeneko gauzatutzat ematen da UPNk eratu duela Nafarroako Gobernu berria; Roberto Jimenezek atea zabaltzen duen ondoren, jakina. Aurrerapauso garrantzitsu bat: PSNk Bildurekin hitz egingo du. Orain gobernu alternatiboa eratzen urratsik emango ez dutenez, basamortuko trantsizio gisa ez litzateke txarra gutxienez oposizio gogorra egitea UPNri. Eta Yolanda Barcinak gorriak ikusiko lituzke behin baino gehiagotan. Berdin Iruñeko Udalean: Simon Santamaria udaltzain burua kargugabetzea litzateke lehen neurria, bakarrik horrekin asko adieraziko luke PSNk. Baina badakizu, irakurle, Nafarroako egonkortasun instituzionala...

PELLO ZUBIRIA

Wal-Marten beti merke eta ona, orain iraunkorra

Xehekako komertzioan munduko enpresa handiena den Wal-Mart irudia hobetzeko ahaleginean ari da azken aldian. Langileak bezala hornitzaileak zukutuz preziorik onenak eskaintzeaz gain, orain iraunkortasuna eta gizalegea saldu nahi lituzke. AEBetako hiri nagusiak konkistatu nahi lituzke, ipini dizkioten hesiak gaindituta.

NELSON LICHTENSTEINEK IDATZIA da munduko hipermerkatu konpainiarik handienari buruzko klasikoa: “Xehekako salmentaren iraultza: Wal-Martek nola eraiki zuen negozioen mundu berri bikaina”. Jatorrizko ingelesean *Brave New World of Business* ipini zuen, lotura eginez Aldous Huxleyren obra famatuarekin. Leon Trostkyren mireslea dela aitortzen duen Lichtenstein sozialdemokrata langile mugimenduaren historian dago berezitua.

Wal-Mart izango da munduan langile gehien duen konpainia, bi milioitik gora planetan barrena, 1,4 milioi AEBetan. 2010ean 421.849 milioi dolarreko salmentak egin ditu, kendu beharreko guztiak kenduta garbi-garbi 16.993 milioi dolar irabazteko.

Askorentzako, Wal-Martek hezur-mamitzen ditu korporazio amerikarren oker guztiak. Zientzia bihurtu ditu kosteak merketzeko teknikak: saltoki erraldoiak eraikitzea, hornitzaileak zukutzea, langileei jornalak eta eskubideak moztea. Wal-Marteko ugazabek beti erantzun dute ahalegin horiei esker prezio merkeak eskaintzen dizkiotela kristo guztiari, horri esker herritar denek eroste ahalmena igoz.

Etsaiak edonon sortuarazi dizkio politika horrek Wal-Marti. Aspalditik dauzka aurrez aurre sindikatuak.

Baina azken urteotan bestelako aktibistak ere oldartu zaizkio, ingurumenaz eta merkataritzaren iraunkortasunaz kezkatuta dabiltzanak. Berrikitan Nelson Lichtensteinek *Alter Net* gunean aztertu ditu etsai horiek eraikitako hesiak gainditu nahian erraldoiak abiarazitako taktika berriak artikulu honetan: “Wal-Mart enbasiak: nola saiatzeko den muntzua zure hirian muturra sartzen”.

1962an sortu zuen Sam Waltonek konpainia eta 1972an sartu zen burtsan. Arkansas, Missouri, Oklahoma eta Texasetik abiatuta, 1980 eta 1990eko hamarkadetan AEBetako geografia osoan hedatzen joan zen. Wal-Martek maite zuen erakustea estatuko mapa tanta beltzez bete, tanta bakoitza saltoki bat. Baina mendea bukatu zen eta erraldoiak sartu ezinik segitzen zuen Chicagon, New Yorken, Los Angelesen, San Franciscen, Bostonen eta beste zenbait hiri handitan.

“Wal-Marti—idatzi du Lichtensteinek— bidea itxi zitzaion ezetz esan zuelako koalizio zabal batek: sindikatuak, liberalek eta ekologistek, gehi komunitate afroamerikarraren eta latinoaren ordezkariak. Hala ere, azken aldian berriro dator ate joka Wal-Mart, saldu nahian ingurumenarekiko sentibera dela eta AEBetako hiri handiek duten lanpostu beharra-

Irudian ageri dena da inguruan Wal-Mart saltoki erraldorik nahi ez duten herritarren manifestazioa, dagoeneko eraiki duten baten aurrean. “Wal-Martik ez nire auzunean” diote afitxeetan. Ezkerrean horiz jantzita doan gizonak hiperrean ez erosteko eskatzen du. Munduko saltzailerik handienak eragin du konkurrentzia dituen konpainiak ere hein handi batean haren ereduaren arabera funtzionatzea. Esku batekin hornitzaileei prezioak izugarri estutuz. Bestearekin langileen soldata eta gainerako eskubideak apalduz. Baina hiper kate guztietan langileentzako okerreana Wal-Mart da, Lichtensteinen aburuz. Honetan behargin batek urteekin ezin du ofizioan ibilbide txukun bat egin: saltokietako arduradunek ekipoak astintzen dituzte, soldata pixkanaka hobetzea lortu dutenak kanporatu eta eten gabe langile hasiberri merkeagoak ekartzeko.

rentzako panazea”. Los Angelesen 2002an hartutako muturrekoak zerbait erakutsi dio erraldoiari.

Gogor hasi zen Los Angelesko gudua. Wal-Martek 40 hiper berri eraikitzeak asmoa azaltze hutsarekin, haren lehiakide Safeway eta Kroger kateek beren langileei soldata eta gainerako eskubideak murriztu nahi izan zizkieten. Greba etorri zen gero eta patronalak lortu zuen komertzioetako 70.000 langile biltzen dituen UFCW sindikatuak sekulako porrota jasatea.

Iraunkortasun jasangaitza

Galera horren kontrako erreakzio bezala sortu zen sindikatuak, zenbait gizarte erakunde liberalek eta latinoen elkarteak osatu koalizioa. Hauen ahaleginez, Los Angelesko udalak ordenantza berri bat onartu zuen 2004an, zeinaren arabera edozein hipermerkatu berri eraikitzeak baimena eman aurretik eskatuko biltzen erakustea ez zuela eragin kaltegarririk izango inguruko biztanleen ez ekonomian eta ez ingurumenen.

Ordenantza berriaren arabera, analisisan kontutan eduki beharko ziren lanpostuetan eta zergetan edukiko zituen eraginak, baina baita zeharkakoak ere: trafikoa, segurtasuna, inguruko lanpostuen soldaten gaineko eragina, udalari ekarriko zizkion kostu gehiketak, eta abar. Adi-



sorreran, negutegi eragina duten gasen isurietan, ur xahuketan eta abarretan estandarra gainditzen duten langile eta hornitzaileak aurrea; gainerakoak, *fuera!*

Garai berrien bigarren ardatza sindikatuekiko harremanak hobetzea izan da. Hedabideetan nabarmendu nahian, korporazio erraldoi-ko presidentea argazkian atera zen sindikalista ezagunekin bilduta. Azaletik ikusita, Wal-Martek daukan langileen xurgatzaile sona goxatzeko. Sakonago begiratu zergo, langileen arteko zatiketak areagotzeko. Bere saltokietan sindikaturik onartzen ez duen konpainiak tratua egin du erai-kuntzako sindikalistekin, Chicagon eta New Yorken eraiki nahi dituen 21 hiperrak haien afiliatuek egin ditzaten.

Mundu zabaleko hiper guztiek nola, Wal-Martek ere lanpostu berriak agintzen ditu, milaka. Chicagon aipatu ditu 2.000 eraikuntzarako, 10.000 saltokietarako, milioika dolar zergetan udalarentzako. Zer esanik ez, herritarrei milaka dolar aurreztea omen dakarkie: Wal-Martek familia bakoitzari 3.100 dolar urtean. Zertan zaude zu, inozoa, oraindik denda txikietan erosiz?

Obamak martxan jarri nahi duen osasun sistemaren erreforma ere primeran datorkio erraldoi zekenari. "Lege honek -idatzi du Lichtensteinek- subsidio handi bat damaie Wal-Marteko langile gaizki pagatuei. Medicaid zerbitzua txirotasun mailaren %133rainoko langileei zabal-tzeak ekarriko du Wal-Marteng langileen erdia gobernuaren laguntzek babestuta egotea". Horri esaten zaio harkaitzari ere dirua errunaraztea. ■

bide argigarri bat esaterako, soldata baxuko lanpostuak sortzeak automatikoki handitzen ditu udalak behargin horien umeei zor dizkien zerbitzu eta dirulaguntzak.

Hiri handien betoaz gain, 2007an lehertutako krisiak behartu du Wal-Mart aldaketa egitera. Izan ere, urteotan asko handitu zaio konkurrentzia; alegia, gutxien irabazten duten herritarrak erakartzen dituzten hiperrena. Mundu mailako hedatze asmoak ere ez zaizkio borobilegi atera, ez bada Kanadan, Mexikon eta herrialde gutxi batzuetan.

Chicago, New York, Los Angeles, San Francisco, Boston eta Washington hirietan sartzeko premia dauka, beraz, horietan bizi delako AEBetako eroste ahalmenaren %20a, baliz-

ko 80.000-100.000 milioi dolarreko salmentak. Horiei haginka egiteko, ordea, aurretik izen ona berreskuratu behar.


Hasteko, Wal-Martek zuzendaritzara Leslie Dach erakarri du, ekologista izana, Edward Kennedy eta Michael Dukakisen ekipoetan aritua. Ezkertiar ohiek askotan ematen diete joko hipermerkatuei, Europan ere bai. Irudi berriaren ardatzetako bat iraunkortasuna da, *sustainability*. Karbono isuria eta lorratz ekologikoa txikiagotu, dendetan, garraioan, urrundik ekarritako produktu bakoitzaren katean.

Sustainability hitzak kosteak dakartzala? Hornitzaileek pagatuko dituzte, espezialista da horretan Wal-Mart. Energi kontsumoan, hondakin



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Mikel Irizar

Presazkoak eta garrantzitsuak

Lerro hauek idazten ari naizela has-tekoak dira –formalki bederen– alderdien arteko harremanak era-kundeetako gobernuak osatzeko. Ekainaren 11n eraturiko dira udalak eta horrek azkartu egingo ditu gauzak Aldundiei begira, nahiz hauek eratze-data jakinik ez izan. Edonola ere, presazkoak ez luke garrantzitsua oztopatu behar.

EZKER ABERTZALEA. Batasuna ohiak sari bikaina jaso du –ohi bezala, ohi baino handiagoa– borroka armatuaren amaiera usaintzen den neurrian. Ardura handien aurrean dago eta, orain-goan bai, badirudi horiei heltze-kotan dela. Dena den Bildu ez da koalizio bat besterik, Sortu behar da behingoz mugimenduari gorputz organikoa emateko. Eta Arnaldo kalean, Rufi eta Rafarekin egitura berria gidatzen.

Aralarrek bere ahulezia erakutsi du EAEn eta bere indarra Nafarroan. Ezker abertzalearen antolaketa berrian indar txikiagoa izango luke, baina tresna bat oso garrantzitsua litzateke: Hegoaldea artikulatzeko giltza.

UDALAK. Parlamentuak bailiran kudeatzen dira, gobernu eta oposizio jokoarekin, baina hau akats larria iruditzen zait. Oso inefizientea da zinegotzien erdia gehi bat lanean jardutea eta erdia ken bat traban. Udaletan beharko litzateke protokolo sinple bat: zerrendarik bozkatuenak alkatea; alderdi guztiak gobernu batzordean, bakoitza dagokion pisuarekin; osoko bilkuretan, gehiengo ezberdinak gaiaren arabera; eta zinegotzi guztiak lanean.

BATZAR NAGUSIAK. Lurralde historikoen legeak zatitu zuen EAJ eta horrek ondo adierazten du zenbateraino gai hau erraiekin jorratzen den areago buruarekin baino. Eta presazkoa ez bada ere, garrantzitsua da erdua berrikustea. Nire ustez eskualdeak bihurtu behar dira hautes- eta kudeaketa-esparru, eta eskualdeen ordezkariak osa dezakete



DANI BLANCO

lurraldeko ganbera geografikoa, Aldundia-ren kontrolerako. Batzar Nagusien esku-men batzuk eskualdeetara hurbildu behar lirateke eta beste batzuk Jaurilaritzaren esku utzi.

ALDUNDIAK. Adin bat badugunok ezagutu ditugu hainbat alderdiz osatutako gobernuak Aldundietan, ez da derrigorrezkoa gehiengo juxtuko itun bat egitea. Hemen ere posible behar luke izan lane-rako prest dauden alderdien arteko lankidetza. Arriskua? Alderdi-lehiak gaina hartzea herritarren interesei. Nola saihestu? Herritarren zaintza zorrotzarekin, eta bozka ematerakoan sari/zigor aldagaia leialtasunaren gainetik jarrita. Ez da kontu berria, hau demokraziaren oinarria besterik ez da.

ITUNA. Aurrekoak esanda, argi dago ez naizela oso itun egonko-rren zalea erakunde hurbilak kudeatzeko. Gobernagarritasuna puztutako balioa da, nahierara gobernatzeko edo gobernatzen-ez-uzteko asmatu den trikimailua. Ituna landuko nuke nik ohitura txarrak gainditzeko, oinarri hauekin:


1. Zerrendarik bozkatuenak Alkatea edo Diputatu Nagusia. Eta lasaitu daitezela alar-mistak: Gipuzkoan kargu hauek hartuta ere, Bilduk ezingo luke bere kabuz nahi duena egin, ez badu bidelagunik aurkitzen.

2. Korapilo handietan esparru komunak bilatu. AHT honezkero atzerazina da, baina hobetu daiteke. Pasaiaiko kanpo portua oraindik ez dago batere argi. Zubietako errauskai-luak merezi du moratoria bat, Gipuzkoako Udalak eta Mankomunitateak berrantzola-tzen diren bitartean. Hondarribiko airepor-tuaz zergatik ez erreferendum bat?

3. Hausnarketa bultzatu patxadaz. Gizarte zibilean badira erakundeak epe ertainerako hausnarketa –hau da, legealdiz gaidikoa– bultzatzen direnak: Eusko Ikaskuntzak historia oparoa du honetan, Jakiunde abiatzen ari da. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Txondorra erretegia

Harpidedun batentzat
lau laguntzako afaria

Bizkaia etorbidea, 9/9
Arrasate GIPUZKOA

www.txondorra-sagardotegi.com

1



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2




EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2278. Argia)

URBANO JATETXEA

- Iñaki Zubeldia Otegi (Ikaztegieta)

ARTIUM

- Maria Jose Etxaide Ibarguren (Bergara)
- Gaintzako Udal Liburutegia (Gaintza)
- Jose Ignacio Villar Saez (Bilbo)

TOLOSA INDOOR KARTING

- Eneko Maioz Ganboa (Orexa)
- Ane Ortiz Ballesteros (Bilbo)
- Mikel Urruzola Arratibel (Lasarte-Oria)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)
- Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)
- Zorione Arregi Barrainkua (Bergara)

GATIBU Zuzenean bizitzeko gogo

- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)
- Osane Larrañaga Muguruza (Zestoa)
- Eihar Egaña Garcia (Donostia)
- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

ESKOZIAK

liluratuta utziko zaitu

Bertatik bertara ezagut ezazu Mugalari bidaia-gida berriarekin

Harrotasunak, independentziak eta zintzotasunak ondutako herrialde baten esentzia. Paisaia eta leku ederrak, txundituko zaituen natura eta harrera beroa egingo dizuten hiriak

Opor bikainak antolatzeko behar duzun guztia, ekainaren 10etik aurrera Euskal Herriko kioskoetan

- Edinburgo hiriburuari buruzko informazio osoa,
- Glasgow-n 48 ordu igarotzeko ibilbidea
- Eta zazpi ibilbide berezitu: Abentura, irletan barrena
Idazleen ibilbidea
Gazteluak, historiaren gotorleku
Eskoziako betiko ohiturak
Whiskiaren herrialdea
Eskoziako basatia
Heroien arrastoari jarraiki

GARArekin, 11,95 euroren truke

